

---

Euskaltzaindiaren  
Oroit-Idazkia

1992




Memoria

1992

Real Academia de la Lengua Vasca  
Euskaltzaindia

---











EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA



Euskaltzaindiaren  
Oroit-Idazkia  
1992

Testu-idazketa: Jose Luis Lizundia  
Testu-gainbegiratzea: Endrike Knörr

© Euzkaltzaindia  
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Fotokonposaketa: Composiciones Rali, S.A.  
Particular de Costa, 12-14-3.º. 48010 Bilbo

Inprimategia: Gráficas Mungia, S.L.  
Barrio Trobika. 48100 Mungia (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-1.636-93

## Aurkibidea

---

Atarikoa .....	7
I. Ekintza Orokorrak .....	9
Bilkura eta akademi bilerak .....	11
Erabaki behinenak .....	15
Batzar txostenak .....	19
Gertakari akademiko eta ekintza ordezkagarriak .....	23
II. Batzordeen Organigrama .....	33
A) <i>Iker</i> Saileko batzordeak .....	35
I. Hiztegi-gintza .....	35
II. Gramatika .....	36
III. Dialektologia .....	36
IV. Onomastika .....	37
V. Literatura .....	37
B) <i>Jagon</i> eta egiturazko batzordeak .....	38
VI. <i>Jagon</i> saila .....	38
VII. Azkue Biblioteka .....	38
VIII. Argitarapenak .....	38
IX. Juridikoa .....	38
C) Batzorde suntsikorrak .....	39
Euskara Batukoa .....	39
Oihenarten IV. mendeurrenekoa .....	39
III. <i>Iker</i> Saila .....	41
I. Batzordea: Hiztegi-gintza .....	43
<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> .....	45
Lexiko erizpideen finkapena .....	51
Hiztegi batua .....	57

II. Batzordea: Gramatika .....	63
III. Batzordea: Dialektologia .....	67
Euskalkien ikerketa arruntak (eia) .....	69
Euskal Herriko hizkuntz atlasa .....	75
IV. Batzordea: Onomastika .....	89
V. Batzordea: Literatura .....	99
Batzorde suntsikorak .....	113
Euskara Batuko batzordea .....	115
Euskaltzaindiaren XII. Biltzarra .....	119
VI. Jagon Saila .....	125
VII. Akademi-zerbitzuak .....	131
Egoitza eta ordezkartzak .....	133
Azkue Biblioteka .....	137
Argitarapenak .....	145
Argitarapenen banaketa .....	149
Bestelako zerbitzuak .....	153
Diruzaintza .....	157
Aurkitegia .....	161



## Atarikoa

1992. urteko lanaren laburpena aurkezten du Euskaltzaindiak liburu honetan. Ez harrokeriak darrabilelarik, jakina, ezta beste liburu bat plazaratzeko. Jendartean behar du gure Erakundeak aditzera eman zer egiten duen. Eta pozik eman ere.

Jendarte hori zer eta nor den aise ikusten da. Herri agintariak, lehenik. Herri diruaz hornitzen da Euskaltzaindia, egunoroko bere eginkizunetarako eta, neurri handiengan ere, bestelako egitasmoetarako. Kontu ematea da, beraz, bi adieratan: zer lan burutu den eta zertan xahutu heldu zaion dirua. Esan beharrik ez da, ikerkuntzan, hizkuntzaren jagotean eta bere jaupidean askatasuna behar duen Akademiak guztiz bidezko jotzen du herri aginteei urteoroko emaitza erakusteko beharra ere.

Erakunde pribatuei helarazi nahi die orobat Euskaltzaindiak *Oroit-Idazki* hau. Diru-emaile izan edo ez, axola handiko atala da hau Euskaltzaindiarentzat.

Gainerako elkarteak eta gizabanakoak dira, halaber, liburu honen hartzaile-gaiak. Euskal hiritar oro, bada, nahi du Euskaltzaindiak jakitun izan daitezen eta ikerkuntza eta jagote eginkizunetan Akademiaren fruitu eta kezken ezagutzaile.

Euskal Herrian ez ezik, atzerrian ere, unitbertsitate, hizkuntz akademia eta ikertegietara zabaltzen da oroit-idazki hau. Munduan barrena es-

katzen diren pareko ekoizpenak ateratzen saiatzen da Euskaltzaindia eta hori inola ere ezin lor daiteke kanpokoekiko harremanik gabe, asmo horietan kide ditugunekiko.

Zenbait erpin ageri dira 1992ko liburu honetan. Haien artean Oihenarten mendeurreneko Biltzarra, XII.a, dugu agian gorena eta aipagarriena. Zuberotar historialari, olerkari, atsotitz-biltzaile eta herri-gizonarengan ilungune asko ziren, ikerketaren zain zeudenak. Zoko guztiak argitu ez badira ere, areago, urrutisko bagara ere, asko da aurreratu dena.

Bere bizitzan lehendabizikoz, Euskaltzaindiak atzerrian egin zituen Jardunaldiak: Renoko IV. Onomastikakoak, irailean, Nevadako Unibertsitatean, eta bertako Basque Studies Program delakoaren laguntza estimagarriarekin antolatuak. Egokieraz baliatuz, garai zailetan sortu eta hazitako euskal ikerkuntz gunearen 25. urteurrenkari Euskaltzaindiak bere aitortza adierazi zuen.

Ez ziren horiek Jardunaldi bakarrak. II. Herri-literatur Jardunaldiak, narratibari lotuak oraingoan, interes bizikoak, egin ziren Donostian, martxoan.

Dena ezin hemen aipaturik, esan dezagun *Orotariko Euskal Hiztegiak* 5.alea kaleratu zuela eta Araban aurkeztu, urtarrilean.


Bitartean, Euskaltzaindiaren beste egitasmo zabala, atlasgintza, aurrera doa. Denbora luzean umoturiko fruituak 1995.ean espero dugu ikustea papereratuak, nahiz tartean zati batzuk kaleratu diren, liburu, aldizkari edo mintzaldietan, bai eta ikerleei emandako argibide ugarietan.

Hiztegi gintzako alor desberdinak, gramatika, dialektologia, onomastika, literatura e.a., orobat euskara batzeko ahalegin etengabeak, eta Akademia batek bere-bereak duen argitarapen atal garrantzitsua, *Euskera* agerkariak landako eremu emankorrenekin, hori guztia orrialde hauetan dago zehaztua.

## **I. Ekintza Orokorrak**



**Bilkura eta akademi bilerak**



Euskaltzaindiak, ohi duenez, hileoro egin ditu osokoen bilkura arruntak. Haez gain, Zuzendaritza gutxienez hileko bigarren ostiraletan bildu da eta batzordeek, lanaren arabera, beren egutegia bete dute. Bilkura haez gain, zenbait gertakizun ospatu dira.

– Urtarrilaren 31an, Gasteizen, *Orotariko Euskal Hiztegiaren V. liburukiaren aurkezpena* egin da Hego Euskal Herriko beste hiru herrialdeetan egin den bezalaxe. Aurkezpenean, Alberto Ansola, Arabako diputatu nagusia, eta Pedro Ramos, kultura foru diputatua mahaiburuan izan dira.

– Martxoaren 25-27 bitartean, Herri-literaturari buruzko II. Jardunaldiak izan dira: Herri-narratiba izenekoak burutu dira Donostian. Jardunaldi hauen zehaztasunak dagokion atalean ageri dira.

– Ekainaren 26an ospatu du Euskaltzaindiak Azkue Bibliotekaren inaugurazioa eta honekin batera antolatu den liburu zaharren eta eskuizkribuen erakusketa zabaldu da. Euskaltzainburuaren hitzekin hasi da ospakizuna eta jarraian Biblioteka honen arduraduna den Jose Antonio Arana Martijak beronen historiari buruzko bere txostena irakurri du. Ondoren, gonbidatu guztiei Azkue Biblioteka eta Artxiboa erakutsi zaie, azalpenak, gelak eta zerbitzu guztien berri zehatzak emanez.

– Uztailaren 24an, Gernika-Lumoko Udaletxean, Euskaltzaindiak Luis Villasanteri eskainitako omenaldia ospatu da. Mahaiburuan eseri dira Jean Haritschelhar euskaltzainburu eta Luis Villasante euskaltzainburu-ohiarekin batera, Sergio Villa, hiriko alkateordea, eta M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia. Gorazarre honen ba-

rruan, Luis Villasanteren omenez burututako Iker bildumako VI. liburukia aurkeztu da. Bertan atxikimenduzko hainbat gutun irakurri dira, besteak beste, Jose Antonio Ardanza lehendakariak bidalitakoa.

– Irailean bi gertakizun garrantzitsu izan ditu Euskaltzaindiak. Hilaren 2tik 4ra Nevadako Unibertsitatean IV. Onomastika Jardunaldiak, eta 21etik 25era, Maule eta Donapaleun, Erakundearen XII.Biltzarra, Oihenarten IV.mendeurrenkari. Ekintza bi hauek dagozkien esparruetan zehaztuko dira.

– Azaroaren 27an, Miren Azkarate euskaltzain berriaren sarrera ospatu da. Azkarate andereak bere sarrera hitzaldian euskararen inguruko lan bikainetan aritu diren emakumeak aipatu ditu (Catalina Elizegi, Julene Azpeitia, Tene Mujika, Errose Bustintza, besteak beste). Ondoren, Jose Migel Barandiaranen bizitza eta lanak ekarri ditu guztien gogoetara. Patxi Altunak eman dio erantzuna Miren Azkarateren bizitzaz eta, batez ere, ikaskez eta iker lanez arituz. Sarrera ekintza honetan Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia, M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia, Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kuturako foru diputatua, Txaro Arteaga, Emakunde Erakundeko zuzendaria, eta beste zenbait ordezkari, bai Unibertsitateko eta bai kultur elkarteetako ere bertan izan dira, euskaltzale ugarirekin batera.



**Erabaki behinenak**



1992. urtean eta batzordeetan landu eta erabakitako gaiez kanpo, hileoroko osoko bilkuretan ere aipagarrienak diren beste erabaki akademiko batzuen berri emango dugu jarraian:

– Urtarrilean, Jose M. Barandiaran euskaltzain ohiaren hutsunea deitoratu du Jean Haritchelhar euskaltzainburuak eta, Araudiak agintzen duen bezala, iragarpen honekin irekiak gelditzen dira aurkeztuak proposamenak, bi hilabeteko epean euskaltzain berri bat aurkezteko.

– Otsailean, Euskara Batuko batzordeak proposaturiko *Zenbakien idazkeraz* azken puntu batzuk zehaztu ondoren, zenbakien deklinabidea onartu da.

Bilkura berean, *Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa* (EEBS) azpibatzearen bukaerako azalpena egin du Andoni Sagarna idazkariak, 1987-1991 bitartean egindako lanen berri ematen duen txostena aurkeztuz. Bertan, Hiztegiak batzordearen barneko azpibatze honek 2.000.000 testu-hitzeko corpus baten bilketa, biluzketa eta lematizazioa egitea izan du helburu. Lan hau bukatutzat jo da eta emaitzez Hiztegi Batuko azpibatze berria baliatuko da.

– Apirilean, Juan San Martin, Patxi Altuna eta Juan M. Lekuona euskaltzainek aurkeztutako Miren Azkarate, euskaltzain hautatua izan da.

– Maiatzaren 29an egindako bilkuran, *bait* partikula kasu guztietan aditzari atxikitua idaztea onartu da. Euskara Batuko batzordearen proposamena onartuz, *-alde /-kalde* erabilera eta *arazi/erazi* aditzari lotua idaztea ere finkatu da.

Batzarre berean, Lexiko Erizpideen Finkapena batzordeak aurkeztutako "Hitz elkartuen osaera eta idazkera" lanari onarpena eman zaio.

– Uztailean Euskara Batuko Batzordeak *guz(t)i hau /hau guz(t)ia* erabileren txostena aurkeztu du. *Hau guz(t)ia* eta kidekoak hobetsi ditu batzarreak.

– Irailean, Euskara Batuko batzordearen proposamenez, honako gomendio hau onartu da: *ni* izenordainaren noren kasuan *nire*, eta nori kasuan, *niri*.

Nafarroako Parlamentuan erabakitako Euskararen Legean aldatu nahiez, Euskaltzaindiak talde politiko guztiei asmo horren alde ager daitezen proposamena luzatu die.

– Urriaren 30ean egindako bilkuran, *usain/usai, arrain/arrai* bezala *-ain/-ai* bukaera duten hitzetan *-ain* forma erabiltzea gomendatzea erabaki da.

Euskal Telebistako Zuzendariak bidalitako gutun bati erantzunez, hitanoa baztertzea hizkuntzarako galera handia izango litzatekeela adieraztea erabaki da.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Frantzia Errepublikako Presidenteari Europako Hizkuntzen Gutuna sina dezan eskatu dio. Honen berri gai honetaz arduratzen diren ministroei igorri zaie.

– Azaroan, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorreko burua den François Bayrou jaunak errepideetako seinaleak behar bezala ezartzeko laguntza eskakizuna gogoz onartu da.

– Abenduaren 18an, Euskara Batuko batzordeak *zain/zai* eta antzeko amaiera duten hitzek aurretik proposatutako eran, hots, *-ain* bukarea onartu da.

**Batzar txostenak**



Hileroko batzarreetan, ohi den bezala, toki berezia egiten zaie txosten akademikoei. Hauek bai mendeurrenak, ospakizunak, goraipamenak eta, orokorki, akademi-gaiak izaten dituzte hari nagusitzat, hizkuntza eta literaturari lotuak. 1992. urte honetan txosten hauek izan dira azpimarragarrienak:

- Jose M. Satrustegik: «Euskaltzaindiaren laguntzaileak, 1959-1962».

Aipaturiko urteetan Euskaltzaindiaren inguruan arituriko laguntzaileen berri emanez.

- Luis Villasantek: «Ameriketan euskal testu zaharrak Arantzazuko Ama Birjinari buruz».

Liman, Aita Juan de Allónek 1647. urtean inprimatutako liburuaz. Bertan bada euskal hitz eta euskal pasarte franko eta, egilearen ustez, Liman garai hartan zegoen euskal koloniarari omenaldia egiteko asmoa zuen liburuak.

- Patxi Altuna: «Ochoa de Arinen *Doctrina Christiana*-ren (1713) hizkeraren laburpena».

Txostengilearen ustez Mendebaldeko azken hiru mende hauetako hizkera ezagutu eta ikertu nahi duenarentzat Ochoa de Arin ordiziarra da nahitaezko ispilu eta iturburu.

- Patxi Zabaletak: «Euskara testamendu eta azken-nahietako idatzietan».

Azken urteotan euskaraz egin diren agiri notarialak izan da gaia. Bereziki Nafarroako kasua aztertu da.

- Antonio Zavalak: «Alfonso M.<sup>a</sup> Zabalaren *Gabon gau bat* izeneko kontuaren sustraiak kondaira aldetik».

XIX. mendeko gipuzkoar apaiz honen zenbait xehatasun eskaini ditu A. Zavalak, eta ondoren ipuinaren sustraia aztertu du eta beste ipuin batzuekin erkatu.

- Juan Karlos Odriozola eta Alberto Canterok: «Euskal izenondoaren kokapenari buruzko zenbait ohar».

Izenondoaren inguruko bibliografia eta eztabaiden laburpena; izenlagunon ikerketa historikoa (-ko, -dun, (t)ar); hitz eratorrien ikerketa, zerrenda luze batekin; hitz-elkarketa, ustezko salbuespenak eta ondorioak.

- Jose Antonio Arana Martijak: «Azkue Bibliotekaren historia».

Datarik garrantzitsuenak, bibliotekarien aipamenak eta berak arduratu zuenetik datarik interesgarrienak eskaini ditu hizlariak, hala nola, jaso diren emaitzak, erosi edo dohainik eskuratu diren liburutegi bereziak, Azkue Bibliotekak antolatu dituen erakusketak, etab., aipatu ditu.

- Juan San Martinek: «Satan, deabrua eta euskara. Mito baten inguruan».

Euskal literaturan zehar idatziriko zenbait testu gogoratu ditu, hots, Lafitte, Azkue, Aizkibel, Mugika, Iztueta, Barandiaran idazleenak.

- «Patxi Altunak: Zenbait puntutxo Leizarragaren hizkeraz».

Lan honetan gramatika alderdi zenbait aztertu ditu Altuna jaunak.

- Juan Karlos Odriozola-Igone Zabalak: «Normatibizazioari buruzko zenbait gogoeta».

Euskara batuaren oinarri morfologikoak finkatu ziren unetik hona azaldu izan diren normatibizazio-jarrera desberdinak bildu dituzte egileek.




**Gertakari akademiko  
eta ekintza ordezkagarriak**



## Urtarrila

Endrike Knörr-ek J.M. Barandiaran euskaltzain zendua-  
ren hil berri txostena irakurri du, haren bizitza eta lanak gorai-  
patuz, bereziki Gasteizen iragan zituen urte oparoak.



*Barandiaranigo Jose Miguel*

Madrilgo Kultura Ministeritzaren eskaria betez, Biblioteca Nacional delakoaren Erret Erakunderako ordezkaria, Jose Antonio Arana Martija izendatu da.

Ministeritza beretik, «Premio Nacional de las Letras Españolas» delako sariaren epaimahairako ordezkaria Endrike Knörr izendatu da.

Bestalde, mota desberdinetan Premios Nacionales direlakoetarako, honako euskaltzain hauek izendatu dira:

Olerkaritza: Jon Kortazar

Narratiba: Ibon Sarasola

Saiakera: Patxi Altuna

Haur eta gazteen literatura: Pakita Arregi

Itzulpena: Xabier Mendiguren Bereziartua

Antzerkia: Patri Urkizu

### **Otsaila**

Orioko Udalak sortutako beka deialdiaren epaimahairako, Patxi Altuna izendatu da.

### **Martxoa**

Iruñeko Udalak antolaturiko literatura lehiaketan, Euskaltzaindiaren izenean epaimahaikide Patxi Zabaleta izendatu da eta ordekoa Andres Iñigo.

Manuel Larramendiren omenez egin ziren ospakizun batzuk 1991an. Hitzaldiak jasotzen dituen liburuaren aurkezpena, Euskaltzaindiaren izenean, J.M. Lekuona eta Patxi Altuna joan dira.

### **Apirila**

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Ignacio M.<sup>a</sup> Etxaide zenaren soin-irudia haren seme-alabengandik jaso du eta urte ilunetan bigarren euskaltzainburu izan zela gogoratu. Ondoren, Jon eta Xabier Etxaidek aitari buruzko omenaldi txiki honegatik beren poza adierazi dute.



Ignacio M. Etxaide

X. Diharce «Iratzeder»ek Isidro Baztarrika euskaltzain urgazle zendu berriaren ohizko txostena irakurri du, Baztarrika jaunaren euskal lanak, eta bereziki, euskal liturgigintzakoak, go-raipatu ditu.

Südtirol/Alto Adigioko parlamentari talde batek bisitatu du Euskaltzaindia. Bilbon dagoen Italiako Carlo Baroni kontsulordeak lagundurik, euskararen arazoez galdetu dute, hots, standarizazioa, euskalkiak, irakaskuntza, egoera soziolinguistikoa, ofizialtasuna, eta abar. Trukezko harremanak sortu dira.

### **Maiatza**

Ikastolen aldeko aurtengo «Ibilaldia 92» delakora, Jose Antonio Arana Martija joan da Euskaltzaindiaren izenean.


Bizkaiko Irakaslegoaren Unibertsitate-eskolak ordezkaria eskatu dio Euskaltzaindiari, bizkaierazko ziurtagiria banatuko duen epaimahairako. J.L. Goikoetxea izendatu da eta ordezko Gotzon Aurrekoetxea.

J.M. Satrustegiren proposamenez, Arturo Campion-en soin-irudia egoitzako batzar-aretora ekarri da.

Nafarroako Parlamentuaren deia jaso da Iruñeko ordezkartzan, maiatzaren 27an Euskararen Legea berrikusteko bilduko den batzorde berezian parte hartzeko. Zuzendaritzak J.M. Lekuona eta J.M. Satrustegi izendatu ditu. Hobekuntzaren Nafarroako Legea aldatzea proposatuko dute, euskararen egoera duintasunez bideratzeko.

Pedro de Yrizar euskaltzain ohorezkoak egindako *Morfología del verbo auxiliar vizcaino (estudio dialectológico)* izeneko liburukiak, Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz Euskaltzaindiak argitaratu dituenak, aurkeztu dira.

Gabriel Zapiain Urretabizkaia euskaltzain urgazle zendua-  
ren hil berri-txostena irakurri du M. Pilar Lasarte urgazleak, ha-  
ren bizitza eta euskal lanak zehaztuz eta gorai patuz.



Halaber, Patxi Ondarra euskaltzainak Jorge Errezuko bere ordenakide eta euskaltzain ohorezkoarena egin du. Ondoren, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak musikologoaren lanei buruzko txosten osagarri bat irakurri du.

### **Ekaina**

Literatur sorketako 1992ko saria emango duen epaimahairako euskal Akademiaren ordezkaria eskatu du Madrilgo Kultura Ministeritzak. Endrike Knörr izendatu da.

Bilbao Bizkaia Kutxaren kultur aretoan Toribio Altzaga, Felipe Arrese Beitia eta Mikel Zarate 1991.an saritutako liburuak aurkeztu dira eta 1992ko lehiaketa iragarri. Juan Mari Lekuona mintzatu da idazlearen garrantzia euskararen normalizapenean azpimarratuz.

### **Uztaila**

Zarauzko Udalaren XI. Xabier Lizardi saria literatur lehiaketarako J.A. Mujika izendatu da ordezkari.

### **Iraila**

Augustin Zubikarai I. Literatur sarietan, kontaera lanak epaitzeko eskaria etorri da Ondarroako Udaletik. Juan Luis Goi-coetxea euskaltzain urgazlea izendatu da.

Errioxako Donemiliaga Kukulan "III Simposio Iberoamericano de Terminología" delakora Euskaltzaindia gonbidatu dute. Ekintza honetan Miren Azkarate LEFeko arduradunak eta Andoni Sagarna batzordekideak parte hartu dute.

### **Urria**

Lankide Aurrezkoa-Euskadiko Kutxak, gazteentzako I. Sketch lehiaketa antolatu du. Euskaltzaindiaren izenean Endrike Knörr izendatu da eta ordezko, J.M. Velez de Mendizabal.

Jose Migel Zumalabe urgazlearen hil berri txostena irakurri du Juan M. Lekuona euskaltzainburuordeak, haren euskaltzaletasuna eta Euskaltzaindian egindako lanak aipatuz.



**Azaroa**

Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue idazle gazteentzat antolatutako kontaera eta olerkien sariko epaimahaikideak izendatu dira: Xabier Altzibar, Juan Luis Goikoetxea eta Juan Otegi. Ordezkoa, Bittor Uraga.

**Abendua**

Muxika-Areatzako «Garriko» bertso eskolan, Santi Onaindia eta Alfonso Irigoien omenduak izan dira. Bertara J.A. Arana Martija joan da Euskaltzaindiaren izenean.

Eibarko «Eta kitto» euskaltzale elkarteak antolaturik ekitaldia izan da. Aurora Baskaran hiriko alkatesa, M. Karmen Garmendia eta Iñaki Larrañaga Siadecokorekin batera mintzatu da Jose Antonio Arana Martija.

Araba eta Bizkaiko bertsolari txapelketa hil honen 20ean bukatu da. Lehen saria Jon Enbeitak lortu du eta bigarrena, Unai Iturriagak. Honetan ere, J.A. Arana Martija jaunak eraman du ordezkaritza.

Gorka Aulestia Literatura-ikerketa azpibatzordekidearen lau liburu aurkeztu dira egoitzan: *Basque-English Dictionary, English-Basque Dictionary, Euskara-Ingeles/Ingeles-Euskara Hiztegia* eta *Erbesteko euskal literaturaren antologia*.

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzarekin urteoro antolatu ohi dituen literatura sariak banatu dira. Irabazleak eta epaimahaikideak honako hauek izan dira:

- Txomin Agirre eleberri sarian irabazle: Luis M. Mujika, eta epaimahaikideak: Xabier Gereño, Felipe Juaristi eta Arantza Urretabizkaia.
- Toribio Alzaga antzerki sarian irabazle: Junes Casenave, eta epaimahaikideak: Daniel Landart, Patri Urkizu eta Eugenio Arozena.

- Felipe Arrese Beitia olerki sarian irabazle: Patxi Ezkiaga, eta epaimahaikideak: Bitoriano Gandiaga, Juan M. Lekuona eta Mikel Lasa.
- Mikel Zarate saiakera sarian irabazle: J. Manuel Odrizola, eta epaimahaikideak: Alfonso Irigoien, Xabier Kintana eta Adolfo Arejita.

## **II. Batzordeen Organigrama**



**1991-92 urtebikoa**

**A. IKER SAILEKO BATZORDEAK**

Iker sailburu: Luis Villasante

**I. Hiztegitza**

Batzordeburu: Ibon Sarasola

Idazkari: Mikel Zalbide

Batzorde hau hiru azpibatordetan banatzen da:

*Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)*

Arduradun: Ibon Sarasola

Idazkari: Iñaki Segurola

Kideak: Arantza Egia, Gabriel Fraile, M.<sup>a</sup> Jose Kerexeta, Elixabet Kruzeta, Blanca Urgell, Eduardo Valencia.

*Lexikologi Erizpideen Finkapena (LEF)*

Arduradun: Miren Azkarate

Idazkari: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Patxi Altuna, Juan Karlos Odriozola, Andoni Sagarra, Martxel Ensunza, Patxi Goenaga, Jose M.<sup>a</sup> Larrarte, Luis M.<sup>a</sup> Mujika, Lourdes Otaegi, Beñat Oihartzabal, Patxi Uribarren, Tomas Uribeetxebarria, Patri Urkizu.

## Hiztegi Batukoa

Arduradun: Ibon Sarasola

Kideak: Iñaki Segurola, Miren Azkarate, Jose Antonio Aduriz, Andoni Sagarna, Mikel Zalbide Beñat Oihartzabal, Pello Salaburu, Luis Baraiazarra.

## II. Gramatika

Buru: Patxi Altuna

Buruorde: Pello Salaburu

Idazkari: Patxi Goenaga

Idazkariorde: M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte

Kideak: Miren Azkarate, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Jean Haritschelhar, Alan King, Jose M.<sup>a</sup> Larrarte, Jesus M.<sup>a</sup> Makazaga, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Karmele Rotaetxe.

## III. Dialektologia

Buru: Patxi Ondarra

Batzorde hau bi azpibatxordetan banatzen da:

### Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (*EHHA*)

Arduradun: Jean Haritschelhar

Idazkari teknikoak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain

Kideak: Isaac Atutxa, Ana Maria Etxaide, Jose M.<sup>a</sup> Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

### Euskalkien Ikerketa Arruntak (*EIA*)

Arduradun: Txomin Peillen

Idazkari: Iñaki Gaminde

Kideak: Gotzon Aurrekoetxea, Ana Maria Etxaide, Jose M.<sup>a</sup> Etxebarria, Iñaki Gaminde, Alfonso Irigoien, Rosa Miren Pagola, Karmele Rotaetxe, Xarles Videgain.

#### **IV. Onomastika**

Buru: Endrike Knörr  
Buruorde: Alfonso Irigoien  
Idazkari: Jose Luis Lizundia  
Kideak: Ricardo Cierbide, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Mikel Gorrotxategi, Andres Iñigo, Jose Maria Jimeno Jurío, Jean-Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi.

#### **V. Literatura**

Buru: Juan M.<sup>a</sup> Lekuona  
Batzorde hau bi azpibatxordetan banatzen da:  
Herri Literatura  
Arduradun: Antonio Zavala  
Idazkari: Pello Esnal  
Kideak: Jose M.<sup>a</sup> Aranalde, Antton Aranburu, Jesus M.<sup>a</sup> Etxezarreta, Alfonso Irigoien, Jose M.<sup>a</sup> Iriondo, Mixel Itzaina, Emile Larre, Abel Muniategi.

#### Literatura Ikerketa

Arduradun: Juan M.<sup>a</sup> Lekuona  
Idazkari: Jon Kortazar  
Kideak: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Pierre Charritton, Gotzon Garate, Jean Haritschelhar, Jon Juaristi, Jesus M.<sup>a</sup> Lasagabaster, Luis M.<sup>a</sup> Mujika, Jean Baptiste Orpustan, Juan Otaegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Bittor Uraga, Patri Urkizu.

## **B. JAGON ETA EGITURAZKO BATZORDEAK**

### **VI. Jagon saila**

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Ramuntxo Kanblong, Pierre Charritton, Andres Iñigo, Xabier Kintana, Juan M.<sup>a</sup> Lekuona, Juan Antonio Letamendia, Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi, Andres Urrutia, Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal, Patxi Zabaleta, Mikel Zalbide.

### **VII. Azkue Biblioteka**

Buru: Pello Salaburu

Arduradun/Idazkari: Jose Antonio Arana Martija

Ekonomi-eragilea: Juan Jose Zearreta

Kideak: Federiko Barrenengoa, Jon Bilbao, Juan Angel Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea.

### **VIII. Argitarapenak**

Buru: Jean Haritschelhar

Eragile-Idazkari: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Juan M.<sup>a</sup> Lekuona, Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi, Jose Antonio Arana Martija, Luis Villasante, Endrike Knörr, Pello Salaburu, Patxi Altuna, Pierre Charritton.

### **IX. Juridikoa**

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana Martija, Juan M.<sup>a</sup> Lekuona, Abel Muniategi, Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi, Andres Urrutia, Patxi Zabaleta.



## C. BATZORDE SUNTSIKORRAK

### **Euskara Batukoa**

Buru: Luis Villasante

Idazkari: Pello Salaburu

Kideak: Patxi Altuna, Pierre Charritton, Ibon Sarasola.

### **Oihenarten IV. mendeurrenekoa**

#### Akademi-azpibatzerdea

Buru: Juan M.<sup>a</sup> Lekuona

Kideak: Patxi Altuna, Manex Goienetxe, Jean Haritschelhar, Jean-Baptiste Orpustan, Txomin Peillen, Endrike Knörr Euskal Herriko Unibertsitatearen izenean eta Rosa Miren Pagola Deustuko Unibertsitatearen izenean.

#### Antolakizun-azpibatzerdea

Buru: Jean-Louis Davant

Idazkaria: Jose Luis Lizundia

Kideak: Pierre Charritton, Jose Antonio Arana, Juan Jose Zearreta eta Sü-Azia elkarteko M. Beraxagar.




### **III. Iker Saila**




## **I. Batzordea: Hiztegi-gintza**

Batzorde honek hiru azpibatzerde ditu, hots:

- *Orotariko Euskal Hiztegia*
- Lexiko Erizpideen Finkapena
- Hiztegi Batukoa



## **Orotariko Euskal Hiztegia**





*Orotariko Euskal Hiztegia* burutzen ari den lantaldeak bere eginkizunean jarraitu du 1992. urtean. Urtarrilean kaleratu zen Hiztegiaren 5. liburukia: BER-DAG zatia besarkatzen du, 786 orrialdetan, 5.968 hiztegi-sarrerekin eta 40.000-ren bat adibiderekkin.

Hiztegiari, 5. eta bereziki 6. liburukitik aurrera, egin zaizkion murrizketez hitz egin da 1991ko *Oroit-idazkian*. Honen ondorioz, jakina da atzerapen handia gertatu zaiola OEHko lantaldeari idazketa lanetan, argitaratzeko prestaturik zeukan material ugarien murrizketa egin eta aurreratutako lan hori gabe gelditzean. Horregatik, besteak beste, ez da 1992an 6. liburukia atera, 1993ko udaberrian kaleratzea espero dena. Bidenabar esan behar da murrizketa hauen ondorioz, 5. liburukian 4.ean baino 2.000 sarrera gehiago sartu ahal izan zirela, eta 6. liburukian gutxi gora behera 3.500 sarrera gehiago ematea espero dugula.

### **1992ko lanen zehaztapena**

*Orotariko Euskal Hiztegiko* lantaldeak burututako lan desberdinen zehaztapena bukaerako eranskinetan ematen da.

Laburbilduz honako hau esan daiteke:

— Idazketan, *EDO-ESAN* bitartea landu dela.

— Zuzenketa-lan desberdinetan *D* letra bukatu, eta *EP* (zuzenketa filologikoan), *EK* (testu zuzenketa) eta *EL* (sarrera buruen zuzenketa) zatietaraino egin dela.

## 1. ERANSKINA


## 1992ko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazioa eta zuzenketa		Testu zuzenketa	Sarrera buruen zuzenketa	Zuzenketak fil. eta lexik. makinaratzea
	Segurola	Sarasola	Kruzeta	Egia	
Urtarrila	debl-/dina-	daga	damn-deli deli-diakre	denda-	
Otsaila	din-/dzu-		deli-diakre	dest-	
Martxoa	«D»-ren gehigarriak	dird-	diakre-donez (4 ordu)	dest-/din-	Segurolaren zuz. makinaratu «D»
Apirila	Sarasolaren zuzenk. begiratu + ea	dird-/dzu-	diakre-donez (4 ordu)	din-/dix-	Sarasolaren zuz. makinaratu dag-/dird-
Maiatza	Ibon-en zuzenk. begiratu + edo		diakre-donez (4 ordu)	diz-/dor-	Sarasolaren zuz. makinaratu dird-/dzu-
Ekaina			donez-dzz (4 ordu)	dor-/dzu-	
Uztaila		(erredakzioan)	ea-/ed- (4 ordu)	ea-/eg-	
Abuztua	egun (+ gehigarriak)	(erredakzioan)	AINHOA ARANBURU	eg-/ei-	Segurolaren zuz. makinaratu <i>ea-/ega-</i>
Iraila	—		ea-/ed-	eg-/ei-	
Urria	egun	ea-/ega-	ea-/ed-	ei-/ek-	Iñakiren zuzenk. makinaratu <i>ega-/egun</i>
Azaroa	eliza		edes-/egos-	ek-/ el-/	Iñakiren zuzenk. makinaratu <i>egun-/ekur-</i>
A b e n - dua	eper		egos-/ekol-	el...- (8318Y)	Iñakiren zuzenk. <i>ekur-/enbar-</i>


## 2. ERANSKINA

### 1992ko ERREDAKZIO-LANAK

	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
FRAILE	7: <i>enb-</i> 9: <i>end-</i> 15: <i>eng-</i>	<i>eng-/entz-</i>	<i>entz-</i> 16: <i>eram-</i> 23: <i>eraman</i>	2: <i>eran-</i> <i>men</i>	<i>eraso/erau-</i>	<i>erazt-erak-</i>	<i>erak-erk-erl-</i>	<i>erm-ern-</i>	<i>ero-erag-erai-</i>	<i>eduki-egon</i>	<i>egon/egin edun/ero eroan/edun</i>	<i>ero-/erro ero-/erro</i>
KEREJETA	13: <i>edu-</i> 15: <i>ef-</i> 23: <i>epa-</i>	8: <i>edo-epe-epel-</i>	<i>epa-</i> 6: <i>era</i>	<i>eper-erag-</i>	<i>era-</i>	<i>erat-</i>		( <i>bukatu</i> )	<i>era-</i>			
KRUZETA			23: <i>erbi</i>	<i>erbin-</i>	<i>herd-/ered-</i>	<i>erei-erem-</i>	<i>eren-eres-</i>	<i>eres-err-</i>	<i>erra-erran-</i>	<i>errab-erram-erreg-errek-</i>	<i>erreg-errek-erres-</i>	<i>errek-erres-</i>
LOIDI								<i>erg-</i>	<i>erraus-erraz-erre-</i>	<i>erranb-erratz-errea-erreg-</i>	<i>erref-erreb-erred-</i>	<i>erres-erret-</i>
URGELL	<i>heldu</i>	<i>heldu</i> 19: <i>ele-</i> 27: <i>den</i>	<i>deus den dena</i> 23: <i>ele-</i>	<i>ele-</i>	<i>eli-</i>		<i>ERDITZE</i>	<i>BAIMENA</i>		<i>eliz-</i>	<i>elkar-</i>	<i>elk-</i>
VALENCIA	<i>eman-emaz-</i>	12: <i>eme-</i> 26: <i>hemen</i>	<i>hemen</i> 5: <i>emend-</i> 18: <i>erb-</i>	<i>erdal-erdi-</i>	<i>erdi</i>	<i>erdz-/</i>	<i>ea//</i>	<i>ere</i>	<i>ere edozein eman</i>	<i>edo-erraz-</i>	<i>erraz-erran-</i>	<i>esan-</i>
SARASOLA								<i>eri-/</i>				



**Lexiko erizpideen finkapena**



Hiru esparrutan eskaini du LEF azpibatzerdeak bere lana 1992. urtean: 1. Eratorpenaren azterketa; 2. Hitz elkartuen ikerketaren ondorioak kaleratzea; 3. Ondoko lana bideratzea.

### **Eradorpena**

Erador-atzizkien azterketa amaitzea zen helburu 1992.urtean, eta, horretarako, lau lan-bilera zituen begiz joak. Bost bilera egin ditu, eta erabat bete du iaz adierazitako egitasmoa, dagoeneko atzizki guztiak banan-banan aztertuak baititu berariazko txostenetan.

Egitasmoan azaltzen zenez, sistematikoki ikertu dira ondoko puntuak atzizki bakoitzean: 1. Atzizkiaren lema eta aldaerak; 2. Hitz eratorriaren kategoria eta azpikategorizazioa; 3. Hitzoinarriaren kategoria gramatikala eta azpikategorizazioa; 4. Atzizkiaren adierak; 5. Atzizkien pilaketa edo garapena; 6. Junturako hots-aldaketak; 7. Atzizkiaren emankortasuna.


Egindako bilerak eta horietako bakoitzean aurkeztutako txostenak eta egileak, berriz, hauek dira:

1. Otsaileko bileran, «*-keta* multzokaria, *-keta* xerkaria» eta «*-goa* atzizkia» txostenen bigarren idaztaldirak aurkeztu zituen Beñat Oihartzabalek eta «*-gailu* tresna-atzizkia»; «*-di*, *-doi*, *-dui* atzizkia» eta «*-ki3* (*odolki*, *gizaki*) atzizkia» txostenak Miren Azkaratek; «*-be*, *-pe* atzizkia» Jose Antonio Adurizek.

2. Maiatzeko bileran, «*-ki2* (*estalki*: aditza + *-ki*) atzizkia» eta «*-garri2* (*ongarri*, *lokarri*) atzizkia» Luis M. Mujikaren txostenak eztabaidatu ziren; «*-kin* atzizkia» Jose Antonio Adurizena;

«-le, -zaile atzizkiak» Patxi Uribarrenena; «-kari (*opari, eskari*) atzizkia» Lourdes Otaegirena; «-kizun atzizkia» Patxi Goenagarena.

3. Ekaineko bileran, «-ari (*-lari, -kari, -tari*) atzizkia» eta «Euskal aurrizkiak» aztertu zituen Miren Azkaratek; «-tegi atzizkia» txostena Martxel Ensunzak; «-gin/-gile atzizkia» Patri Urki-zuk; «-ada (*-kada, -tara, -tra, -ta*) atzizkia» Andoni Sagarnak; «-gio, -gu, -gi, -gia atzizkiak» Beñat Oihartzabalek.





4. Urrikoan, «*-be/-pe* atzizkia (bigarren idatzaldia)» eta «*-tze* atzizkia» aurkeztu zituen Jose Antonio Adurizek; «*-era* (*-kera*) atzizkia» Miren Azkaratek; «*-dura* atzizkia» Beñat Oihartzabalek; «*-kunde* atzizkia» Luis M. Mujikak.

5. Azarokoan, «*-kuntza* atzizkia» Beñat Oihartzabalena aztertu zen; «*-keta* atzizkia» Patxi Goenagarena; «*-tza3* (*emaitza, jaiotza*) atzizkia» Jose Antonio Adurizena; «*-zio* atzizkia» Lourdes Otaegirena.

Abendukoan, azkenik, «*-men, -pen* atzizkia» Andoni Sagararena.

### Hitz elkartuen ikerketaren ondorioak

Bospasei urtetako lanaren fruitu, "Hitz elkartuen osaera eta idazkera" izeneko txostena aurkeztu dion azpibatzordeak Akademiari otsaileko bileran: bai txostena bera eta bai eranskinak, Mikel Zalbide batzordekideak landuak dira nagusi-nagusiki.

Txostena bere horretan argitaratzea erabaki zuen Argitarapen batzordeak. Horrez gain, Euskaltzaindiak bere gomendio-arau bihur zitzakeen oinarritzko idaztarauen laburpena prestatzeko laguntza eskatu zion batzordeari: Euskara Batuko batzordeari aurkeztu zion lehen proposamena Talde eragileak eta, hark egingadako oharrak jaso ondoren, apirileko osoko batzarrean eztabai-datu da. Elkarte-moten arabera aurkeztu ordez, gomendatzen den idazkeraren arabera ordenaturik eskaintzea erabaki du Euskaltzaindiak. Bigarren proposamena egin du, ondorioz, Talde eragileak eta maiatzean Euskara Batuko batzordearen eskuetan jarri. Ekaineko hiloroko batzarrean aztertu zuen, bere eginez eta argitara emanez (ik. «Hitz elkartuen osaera eta idazkera. Euskaltzaindiaren gomendio-arauak», in: *Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak* (II), 27-37).

### Ondoko lana bideratzea

Jardunaren erritmoa bizkortu du batzordeak, atzizkien azterketa amaitu eta hurrengo urteko aztergaia bideratzeko. Horre-

la, erdal aurrizkiak euskaraz nola ordezkutzen diren ikertzeko corpus egokiena eztabaidatu eta aukeratu da. Antzeko arazoak lehenagoko idazleek ere izan zituztenez, garai eta sentiberatasun desberdinetako saioak alderatzea erabaki du batzordeak, hartara jokabide eta ordain desberdinak izango baititu eskura.

Xede honekin, zenbait testu biluzi dira: Gregorio Mujikaren itzulpen bat; Gaxitegi/Agerreren lan argitaragabe bat; Elizbarrutietako dokumentu batzuk; Euskaltzaindiaren *El libro blanco del euskera / Euskararen liburu zuria*, Bilbo, 1978; Yokin Zaitegi itzulpen-sariak irabazitako batzuk; zenbait aldizkari ofizial eta K. Mitxelenaren filme-kritiketako baliokideak.

Lehendik eginak dauden testuetako biluzketaz ere baliatu da, nahiz hauek ez duten testuingurua jasotzen, gehienbat hiztegi eta fitxategiak.

Bestalde, atzizkiak banan-banan aztertu ondoren, azken urteotako hitz-sorkuntza etengabeak nolako aldaketak ekarri dizkion eratorpenari ikusi ahal izan du azpibatzen. Aldi berean, hobeki zehaztu beharreko zenbait auzi ere mahaigaineratu dira, hala nola zenbait atzizkiren lema eta aldaerak finkatu eta agian bideratu beharra (-ari/-lari edo -ar/-tar formen artekoa, esaterako), txistukarien ondoko herskariak ahoskabetu ala ez, etab. Ondorioz, Euskaltzaindiaren 75. urteurrena dela eta egingo den Biltzarrean, erator-atzizkien inguruan zuzendu, bideratu edo eztabaidatu beharreko puntuak bilduko dituen txostena aurkeztuko du LEF azpibatzen.

Euskaltzaindiak batzordearen lan mekanikoen aringarri eskaini duen bekaduna (Maite Ulazia lehenik eta Gotzon Muñoa gero) *Hitz-Elkarketa/2* liburukiko adibidetegia zuzentzen eta azpisaikatzen ari izan da, UZEIren egoitzan, Miren Azkaratek landutako sailkapen-irizpideak aplikatuz. Eratorrien adibidetegiaren lanketari ere aurrerapauso nabarmena eragin dio, eratorri bakoitzari bere atzizki-lema ezarriz fitxategian.

**Hiztegi batua**



Euskaltzaindiak 1991ko abenduaren 20ko batzarrean sortu eta eratu zuen Hiztegi Batuko azpibatzerdea, «Hiztegi batua. Lanketa- eta onespren-prozedurak» izeneko txostenean oin harturik (ik. *Euskera*, XXXVI, 797-798 eta 1135-1145 or.). 1992ko otsailean hasiz, hilorio elkartu da batzerdea.

Aipaturiko txostenean aginduak zehaztuz, batzerdearen beraren osaerari eta barne-antolamenduari dagozkionak argitzea izan da lehen egitekoa eta, besteren artean, lehendik izendatuak zeuden Ibon Sarasola, Miren Azkarate, Mikel Zalbide, Luis Baraiazarra eta Iñaki Segurola batzerdekideez gain, Iparraldeko partaidea —Piarres Charriton— eta UZEIko prestalaneko kideak —Jose A. Aduriz eta Andoni Sagarna— izendatzea. Horrez gain, lehen bileran batzerdeburua (Ibon Sarasola), moderatzailea (Miren Azkarate), eta idazkaria (Jose A. Aduriz) ere hautatu dira.

Lan-prozedura eta batzerdearen irizpideak zehazteko aurretiazko saioarekin batera, hasierako eginkizunak egokitu eta mugatu ditu batzerdeak, prestalanaren egoerak hartaturik. Honak OEH (*Orotariko Euskal Hiztegia*) eta EEBS (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa) corpusetan oinarritu behar baitu informazioa, fitxategi biak eskura izateko bideak egiten ari izan da UZEI: OEHko testuak lekualdatzeko eta eroso kontsultatzeko modua egin du, ordenagailu berria erosiz, *Oracle* datu-baseaz hornituz, EJI Erek in harremanetan jarriz, etab.; EEBSren lehen zatia (1900etik 1987ra artekoa) lematizatzea burutu du, eta, 1988-1990 epeko euskal ekoizpenaren inbentarioa osatu eta sailkatu ondoren, ondoko hilabeteetan landuko den lagina mugatu du, testuak eskuratzen, biluzten eta lematizatzen jarraitzeko. Bide-nabar, informazio hori egituratuko duen datu-base lexikografikoa eratzeari ekin dio.

Batzordeak, bere aldetik, bi irizpide izan ditu gidari lehen ekinaldiko aztergaia zedarriztatzean (bizpahiru mila hitzeko zerrenda): lehenik, Euskaltzaindiak orain arte eskaini dituen hiztegi-erabaki guztiak jasotzen dituen bilduma berrikusiko du, aurrelan gisa, eta, gero, maiztasun handieneko forma onetsiez osatuko.

Aurrelanari ekiteko, «Batasunerako hiztegia» (1968) eta «H letraren ortografi arauak» (1979) biltzen dituen hitz-zerrenda hartu du tresnatzat (2.000 inguru forma). Hamar zatitan banatu du, denak A-tik Z-rako multzoak.

Zerrenda-zati horietako bana edo bina aztertu da bilerako (hots: 200 edo 400 hitz aldiko), eta urrikoan burutuz lehen ikusaldia. Dokumentu batean jaso dira ikusitako formak eta horiei buruzko erabaki-proposamena: batzordearen ustez beste gabe onartzekoak direnak seinalatuz, informazio osagarriren bat behar dutenak, aparteko zailtasunak dituztenak, etab.


Taldean eginiko oharren haritik, bere irizpideak formalizatzen hasi da batzordea eta forma bakoitzari dagozkion informazio osagarri eta markak sistematizatzen. Azterketa horretatik ondorioztatzen denez, hitzen laurdenak edo beharko du txosten argigarria, dela forma erabakitzeko datu eta irizpideak eskaintzeko, dela erabilera zuzena bideratzeko, dela adibide egokiez hornitzeko, etab.

Euskaltzaindiaren azaroko batzarrean aurkeztu du batzordeak oraindainoko lanaren emaitza: zerrenda banatan, kasuz kasuko oharrak eskaini ditu, batetik, eta, bestetik, formalizatuz joan den irizpideak. Euskaltzainei bezala, beste iritzi-emaileei ere helaraziko zaizkie batzordearen proposamenok, beren oharrak idatziz, argi eta labur, baina ahal bezain dokumentatuak egiteko erreguarekin. Larogei laguneko taldea aukeratu da horretarako.

Bere lanaren abiapuntu kontsideratzen dira orain arte egindakoak: hainbat forma erabakitzeko arazorik ez dagoen bezala, beste zenbait berariazko txostena egin zain geratu baita lehen itzuli honetan, dela txosten hori egiteko behar den infor-


mazioa eskuratzerik izan ez duelako oraindik UZEIko prestalaneko taldeak, dela aldez aurretik definituriko paradigmen arabera sistematizatu nahi direlako azpimultzo batzuk, etab.

Nolanahi ere, bigarren aztergaiari heldu zaio azaroko eta abenduko bileretan: *Merkatalgo izendegia* (1974 eta 1984), *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* (1975) eta *Matematika hiztegia* (1978) jasotzen ditu, nagusi-nagusiki, bigarren zerrenda honek. Lanari heldu orduko nabarmendu da irizpideak berrikusi edo/eta egokitu beharra: tradizio urriko edo are tradizio gabeko formak eskaintzen baititu aztergaiak, edo, tradiziozkoak izanik, adiera berriarako proposatzen. Aurreko aztergaietan bezala, forma konkrituak ikertu ahala egituratuko dira irizpide berri edo berri-tuok; eta forma hobetsiekin batera ezagutaraziko dizkie euskaltzain eta beste iritzi-emaileei.





## **II. Batzordea: Gramatika**



1992. urtean Gramatika batzordeak aurreko urtean hasitako lanarekin jarraitu du, hots: juntaduraren azterketarekin. Lanak daraman atzerapena gaiaren zailtasunari egotzi behar zaio eta ez lan-erritmoari. Horregatik, aurreko urtean landutako txostenak behin eta berriro eztabaidatu behar izan dira eta osatu. Zenbait txosten erabat berritu beharra ere izan da eta, oraindik ere, badira argitu beharreko hainbat puntu, oso gutxi aztertutako gaia baita juntagailuen hau. Horregatik, gerora ere izango dira juntaduraren arazo honetan sakondu eta biribildu beharreko kontuak. Nolanahi ere, egin den lana positiboa da eta, muga hauek gora behera, lana laster emango da burututzat.

### **Bilerak eta aztertutako gaiak**

1992. urtean hamalau bilera egin dira, hamahiru batzorde osoarenak eta beste bat batzordeño batena, azken hau lanaren behin betiko taxua erabakitzeko. Lau zutabe nagusi izango ditu lanak: 1) sarrera gisako zerbait, lanaren oinarriak eta kontzeptu nagusiak azaltzen dituen; 2) emendiozko juntadura; 3) hautakaritza; eta 4) aurkaritza. Gai hauen inguruan aurkeztutako txostenak eztabaidatu dira, batzordeak ohizkoa duen bideari jarraituz. *Banakaritza* delako fenomeno ere aztertu da baina emendiozkoen eta hautakarien artean banatuz.

### ***Corpusaren erabilera***

Aurreko lanetan bezala, txosten hauek idazteko eta eztabaidaren harian ia-ia eten gabe sortzen diren aztergai berriei buruzko informazioa lortzeko, corpusaz baliatu beharra izan du batzordeak, horretarako Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako

Idazkaritza Nagusiak batzordearen esku jarria duen konputagailu-terminala erabiliz.

### **Gramatika laburra**

Gramatika batzordearen orain arteko lanaren laburpen izango litzatekeena, *Gramatika Laburra* izenekoa, alegia, aurreko urtean hasi zen eta aurten burutu da, 1993ko urtearen hasieran onarpena emateko moduan.




Patxi Altuna

### **III. Batzordea: Dialektologia**

Batzorde honek bi azpibatzerde ditu:

- Euskalkien Ikerketa Arruntak (EIA)
- Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)



**Euskalkien ikerketa arruntak (eia)**






1992. urtean Dialektologia Azpibatzorde honek egin duen lana ondoko puntuotan bil daiteke:

1. Azpibatzordeak egin dituen bileretan, zenbait batzordekidek txostenak aurkeztu dituzte eta berauek eztabaidatuak izan dira. Txostenak honako hauek izan dira:

K. Rotaetxe: «K. Rotaetxek egindako proposamenak».

G. Aurrekoetxea: «Ahozko euskara jaso eta aztertzekeo proiektua».




2. Azpibatzordeak ahozko euskara biltzeko proiektua aurkeztu dio Euskaltzaindiari. Proiektuaren helburua ahozko euskara bildu eta ezaugarriak aurkitzea izanik, heldu den urterako 55 lekutan grabaketak egitea proposatu izan da.

3. Hirugarren ardatza batzordekideek dagoeneko bildu dituzten lanak argitaratzeko nahia mamitzea eta arrazoinatzea izan da berriro ere. Horretarako beharko litzatekeen agerkari baten premia eztabaidatu da.

Batzordekideek bildutako lanei ondoko beste hauek ere gehitu behar zaizkie:

I. Gaminde: «Bizkaiko ahozko euskararen esaldi konposatuez».

I. Gaminde: «Bilboko Larraskituko euskaraz: lexikoa eta testuak».



Larraskitu

- Santa Larizgoitia
- Jose Egia
- Matea Egia
- Petra Zuluaga
- Damaso Zabaleta


Buja:

- Jeronimo Kortajarena
- Segunda Kortajarena
- Karmele Kortajarena
- Mari Iturrizar
- Segunda Iturrizar
- Fidel Aresti
- Manuela Bilbao


Begoña:

- Fidel Elorriaga
- Isabel Elorriaga
- Karmelo Elorriaga
- Martin Mentxakatorre
- Jose Luis Mentxakatorre

Bestalde, alor honetan, Jon Arretxe, euskal filologian lizentziatuak burutu berri duen Basauriko euskarari buruzko ikerketa aipa daiteke. Elizate horretako udalak babestu duen lan interesgarri hori Euskaltzaindiaren izenean Luis Villasante euskaltzainburu ohiaren ardurapean egin da. Tesia eran agertuko duen lan hau, azaroaren 19an aurkeztu du egileak jendeaurrean Basauriko Kultur Etxean. Euskaltzaindiaren ordezkari Jose Antonio Arana Martija eta Juan Jose Zearreta izan dira.



## **Euskal Herriko hizkuntz atlasa**



Amaitu berri den urtean EHHA lan-programak aldaketa garrantzitsua izan du bere ihardueran. Ohizko zereginei (inkes-tagintza eta datu-sarrera) ekin dio EHHako lan-taldeak, bestalde, joan den urte horretan.

## **Bilerak**

EHHA lan-taldeak hiru eratako bilera arruntak egin ditu urtean zehar: zuzendaritza teknikoek proiektuaren kontrol eta definitzeari buruzkoak eta datu-sartzaileen artean burutzen direnak, lanen koordinaketa eta sortzen diren arazoei aurre egiteko erabiliak.

### *1. Proiektuaren definiziorakoak*

– Atlas akustikoaren ezagutza. Nazioarteko Dialektologia Biltzarraren ondotik sortutako asmoa da. Biltzarra amaitu zenetik EHHako zuzendariak proiektuaren diseinuari ekin aurretik bertan azaldutako *atlas parlant* delakoaren berri zehatza izateko premia ikusi dute.

Biltzarrean entzun hitzaldia eta egilearekiko harremanetan atlasgrafia urrats berri baten aurrean aurkitzen dela ohartuz ekimena zertan gauzatzen den hurbil-hurbiletik ikusteko Salzburgorako bidaiari antolatu da eta hala egin da urtearen hasieran. Bertan ikusi eta Essen (Alemania) hirian kokaturik dagoen RST lantegiari egin bisitaldiaren ondoren (logizielaren egilea) *atlas entzungarriaren* mugak ondo ikasi dituzte.

Bidaia honen inguruan gauzatu dira urteko lehen hilabeteetako bilerak. Haietan EJIeko informatikaria eta HPINeko teknikaria ere partaide izan dira.

## *2. Aditegiaren ondorengo proiektuaren eguneratzea*

1991.eko Nazioarteko Dialektologia Biltzarra parada ona izan da European atlasgintzako proiektu ezberdinak zertan maitzen diren ohartzeko. Biltzarra aberasgarri gertatu da oso, bai metodologia bai bestelakoez European egiten den atlasgintza eta EHHA erkatzeko.

Biltzarraren ostean zuzendariak proiektuaren azken fase informatikoaz pentsatzen hasteko, hau da, azken emaitza lantzen hasteko prest azaldu dira. Ezusteko eta gorabehera batzuen ondoren «EHHA: proiektuaren eguneratzea» titulua zuen txostena aurkeztu diote zuzendari teknikoek Zuzendaritzari eta aurrekontuetarako Herri-Aginteei.

— Datu-elaboraketa eta kartografiarako aplikapen informatikoa eraikitzeko prestaketa-lanak burutzea izan dute helburu urtearen hondarrean egindako bilerek.

— Informatikarekikoak.

Datuen elaboraketaren prozeduran sakondu ahala idazkari teknikoek Eusko Jaurlaritzako informatikaria eta teknikariekin bildu dira aplikazio informatikoa eraikiz joateko.

## *3. Datuak informatizatzen ari diren lankideekin egindako bilerak*

Erregularitasun batez egin izan dira bilerak datuak sartzen ari diren I. Atutxa, I. Etxebeste eta K. Segurola lankidearekin. Bilera hauetan izan dituzten arazoei irtenbidea eman, datu-sarrera metodologia landu eta aurkeztu, koordinazio-lana burutu eta datu-sarrera programatu egin izan da.



## **Ehha azpibatzordeak urtean Kzehir egindako ekintzak**

### *Inkestagintza*

Aurreko urteetako lanari jarraituz, 1992. urtean honako inkesta hauek amaitu dira:

- Nafarroan: Zugarramurdi eta Eaurta.
- Nafarroa Beherean: Arboti, Armendaritze, Arruta, Domintxine.
- Lapurdin: Bardoze
- Zuberoan: Montori, Altzürükü.

Inkestak biriblizteko, ondoko herrietan jaso dira datuak: Uztaritze, Beskoitze, Donibane Lohizune, Gamarte, Esterenzubi eta Behorlegi.

### *Informatizapena*

#### *1. Datuen informatizapena.*

Aurten, datuak sartzeko sistema aldatu du lan-taldeak argitarapen bideak arindu asmoz. Oinarrizko sisteman inkestaka informatizatzen izan dira datuak. Inkesta osoa sartu izan da segidan. Bat amaitu ostean hurrengo herriko inkestari ekinez. Baina era honetan jarraituz datu guztiak informatizatu bitartean ezinezko zela elaboraketa eta argitarapenik egin ikusiz, datuak sartzeko sistema aldatzea erabaki da, inguruan zegoen argitarapen-egarria kontutan hartuz.

Praktikan jarri den sistema berrian datuak inkesta-atalka informatizatzen dira. Inkesta osoa bost zatitan bananduz inkesta guztietako lehen zatia edo atala sartzen da lehenik. Era honetan inkesta guztietako lehen ataleko datuak lasterrago izango dira informatizatuak eta berehala hasiko dira datuen elaboraketa eta

kartografia lanak, eta ondorioz argitarapena ere bizkortu egingo da.

Sistema aldaketak ikaragarritzko ahalegina eskatu dio lantaldeari. Aurretik ordinagailuak automatikoki egiten izan dituen zeregin batzuk oraingo sistema berrian datu-sartzaileek eskuz egin behar dituzte. Honek datu-sarrerako modu guztia aldarazi egin du. Bi fasetan egingo da datu-sarrera:

Lehenik informazioa lortu den tokitik dagokion galderara eskuz garraiatu behar da kode ezberdinak erabiliz eta oharrak eginez. Datuak informatizatzen hasi aurretik egin behar den lana dugu hau. Datuen prestaketa deitu izan da.

## *2. Datuak ordenagailuan sartu*

Sistema aldaketa urtearen erdialdera eman denez bi era ezberdinetan sartu dira orain arteko datuak: abuztura arte lehenengo sisteman sartu dira. Trailaz geroztik sistema berria inposatu da. Urtean zehar lau lankidek ihardun dute, aldika edo osoka, lan honetan. Lehen zazpi hilabeteetan 14 inkesta informatizatu dira. Inkesta osoak dira, sistema zaharrear eginak. Sistema zaharrear, honenbestez, 18 herritako datuak dira informatizatuak (ikus eranskina). Sistema berrian datuen prestaketarako uste baino denbora gehiago behar izan da. 36 inkesta prestatu dira. Eta hauetatik 5 herritakoak daude informatizatuta.

### *— Informatizazioaren hurrengo faseen prestakuntza*

Nahitara atzeratu da euskal atlasaren azken faseko informatizazioaren eskema kontzeptualaren eraikitzea. 1991 urtearen amaieran hasi zen EHHaren datuen elaboraketa faserako aplikazioan pentsatzen. Ondoren geldiune behartua bizi izan du harik eta Proiektuaren eguneratzea deitu txostena burutu eta onartu arte. Azaro-abenduan ekin zaio berriro eta lehenik proiektuaren prototipoaren elaboraketan dihardute, nahiz oraindik ez lan-sistema ezta tresneriari buruzko erabakirik ez den hartu.

### **Nazioarteko Dialektologia Biltzarreko agiriak**

1991ean burutu biltzarreko agiriak argitaratze-lanetan ere dihardun dute Videgain eta Aurrekoetxeak aztergune honetan. Testuen zuzentzaile, egileekiko harremanak, fotokonposaketaren ardura eta abar, Ricardo Badiola Uriarte Argitarapen eragilearen laguntzaz, beraien gain izan da. Urtearen bukaeran liburua argitaratzeko prest gelditu da.

### **Proiektuaren gidaritza- eta koordinazio-lanak**

EHHako zuzendaritzak inkestak burutu eta datuak sartu eta proiektuaren definizioaz at beste zeregin batzuk ere bete behar ditu bere ihardueran.

– Zinten kontrola burutu eta jarraipena egin. Zeregin honek ez du, hala ere, zintaren egoeraren azterketarik egiten, nahiz horren beharizan nabaria ikusten duen. Erantzun-koadernoaren kontrola eta jarraipena. Garrantzi handikoak dira lan-taldearen dinamikarako. Kontrol zehatza daramate, baina jakitun dira, bestalde, beraien esku ez dauden faktoreak ere tartean direla.

– Inkestagintzaren jarraipena.

– Datu-sarreraren jarraipena. Datuak informatizatzeko prestaketa lanak eta informatizatzea egokiz burutzeko koordinazio eta erabakiak hartzen dituzte.

### **Osoko batzarretara jasotako proposamenak**

Urtean zehar azpibatzerde honek izan ditu harremanak bai Zuzendaritzarekin bai Osoko Batzarrarekin.

– Atlas akustikoa dela eta Salzburgo eta Essen-era egin bidaien ondoren txosten labur bat aurkeztu zaio Euskaltzaindari, «Atlas akustikoa: Salzburg eta Essenerako bidaiaren berri» (92.02.11). Txosten honek bere barnean beste hau ere gordetzen du: «Atlas akustikoaren abantailak».

— «EHHA proiektuaren eguneratzea» txostena aurkeztu zaio Euskaltzaindiari (92.06.19). Zuzendaritzan lehenik eta Oso-ko Batzarrean (92.07.17) gero onartua izan da. Irailak 9ko gutunaren arabera HPINek bere onikusia eman dio.

Eguneratze proiektuan, atlasaren argitalpena bizkortzea izan da helburu nagusia. Xede hori erdiesteko bi aldaketa nabarmen proposatzen dira: datu-sarreraren sistema aldatzea eta langile berri bi hartzea. Lehenak datuen informatizapena tomoka edo atalka egitea dakar. Lehen tomoa argitaratzeko adina informazio prozesatuko da lehenik. Hori amaitu ostean 2. tomorakoa eta horrela.

— «Euskararen ahozko lekukoak» deitu lanak EHHaren argitara-unea aztertzen du, bertan biltzen diren testuen argitarapen aukera bat lantzen delarik (92.11.12).

### **Erakunde zeberdinekiko harremanak**

#### *ALE-Europako Hizkuntz Atlasaren ordezkari*

ALE-k EHHako zuzendari tekniko diren Aurrekoetxea eta Videgain euskararen ordezkari izendatu ditu Euskal Batzordea eratuz. Orain arte euskara bi batzordetan ordezkatzeko zen: Frantziako batzordean J. Allières zelarik ordezkari eta Espainiako batzordean, zeinetan K. Mitxelena zen ordezkari.

— 1992an bi txosten burutu dira: «Navidad/Noël» dela-koaz Euskal Herriko sarean zer ematen duen eta horren inguruan txosten txiki bat burutu zuen («Noël: documentation ethnographique en domaine basque») Videgainek. Bigarrena *luciérnaga / ver luisant* delakoaz.

— Bestalde, irailaren 10etik 13ra ALEko Editorial Boarderako deia erantzunez X. Videgain joan da Glencolmille (Irlanda) hirira. Bileretan, erakundearen zuzendaritzaren proposamenek, Euskal Batzordea onartu da eta Videgain izan da izendatua batzordeburu eta euskal taldearen ordezkari.

– Videgain jauna Quebec-en izan da abuztuan «Endangered Languages. Theoretical positions in current linguistics» titulupean ospatu den XVth International Congress of Linguists delakoan. Bertan «L'Atlas Linguistique du Pays Basque, quelques points de méthodologie» txostena aurkeztu du.

– Gotzon Aurrekoetxeak Arrasate eta Bergarako udaletako Euskara zerbitzuei, inkesta metodologiaz, ikerketetarako aholkularitza eta abarrez laguntza eman die. Gauza bera egoitzara hurbildutako norbanako batzuei ere.

– Hitzaldiei dagokiela, bi eman ditu X. Videgainek urtean zehar EHHaz: Izuran (92.03.18) lehena eta Irisarrin «Ondarearen egunean» (92.10.03) bigarrena, «Les caractéristiques de l'Atlas linguistique du Pays Basque» izenarekin.

## **Bestelako lan eta ardurak**

### *Fonoteka*

Fonoteka eta zinten artxibaketak ere EHHako arduradunen kezka izaten jarraitzen dute. Zinten digitalizazioaz informazio eta aurrekontu eske ibili dira bai Bilbon bertan eta baita RST (Essen) etxeari ere. Erantzun batzuk ere jaso dira, baina ezin izan da martxan jarri.

## ERANSKINA

## EHHA: DATU-SARRERA 1991.EKO ABENDUAREN 31EAN

Lurraldea	Herria	Kodea	Osoa	Atala
BIZKAIA	GETXO	101	+	
	LEIOA	102		
	ZOLLO	103		
	SONDIKA	104		
	LAUKIZ	105		
	LEMOIZ	106		
	ETXEBARRI	107		
	ZARATAMO	108	+	
	OROZKO	109		
	MUNGIA	110		
	ZEBERIO	111		
	BAKIO	112		
	FIKA	113		
	LARRABETZU	114		
	ARRIETA	115		
	LEMOA	116		
	DIMA	117	+	
	ZEANURI	118		
	ERRIGOITI	119		
	BERMEO	120		
	BUSTURIA	121		
	EUBA	122		
	MAÑARIA	123		
	OTXANDIO	124		+
	IBARRURI	125		
	MENDATA	126		
	KORTEZUBI	127		
	ELANTXOBE	128		
	BERRIZ	129		
	ARRAZOLA	130		
	ELORRIO	131		+
	BOLIBAR	132		
	GIZABURUA.	133		
	LEKEITIO	134		
	ETXEBARRIA	135	+	
	ONDARROA	136		
ARABA	ARAMAIO	201		+
GIPUZKOA	GATZAGA	301		+
	ARRASATE	302		+

Lurraldea	Herria	Kodea	Osoa	Atala	
NAFARROA	EIBAR	303			
	ARAOTZ	304			
	OÑATI	305			
	BERGARA	306	+		
	ELGOIBAR	307			
	MENDARO	308			
	DEBA	309			
	AZKOITIA	310			
	URRETXU	311			
	LEGAZPI	312			
	ZEGAMA	313			
	ITXASO	314			
	ARRUA	315			
	AZPEITIA	316	+		
	GETARIA	317			
	BEIZAMA	318			
	BEASAIN	319			
	ATAUN	320			
	ERREZIL	321			
	AIA	322	+		
	ORIO	323			
	ASTEASU	324			
	IKAZTEGIETA	325			
	AMEZKETA	326			
	TOLOSA	327			
	DONOSTIA	328			
	LASARTE	329			
	ANDOAIN	330	+		
	ELDUAIN	331			
	OREXA	332			
	HERNANI	333	+		
	PASAIA	334			
	OIARTZUN	335			
	HONDARRIB.	336			
		URDIAIN	401		
		ARBIZU	402		
	DORRAO	403			
	GAINZA	404	+		
	LEITZA	405			
	ETXARRI	406	+		
	ODERIZ	407			
	GOIZUETA	408			
	EZKURRA	409			

Lurraldea	Herria	Kodea	Osoa	Atala
LAPURDI	BERUETE	410	+	
	IGOA	411		
	ETXALEKU	412		
	XUARBE	413		
	SUNBILLA	414	+	
	DONAMARIA	415		
	ETXALAR	416		
	ALKOTZ	417		
	ANITZ	418	+	
	LEKARoz	419	+	
	ZUGARRAMU.	420		
	EUGI	421		
	ERRATZU	422	+	
	ZILBITI	423		
	MEZKIRIZ	424		
	LUZAIDE	425		
	ABAURREG.	426		
	EAURTA	427		
	HENDAIA	501		
	DON. LOHIZ.	502		
	AZKAINA	503		
	SARA	504		
	SENPERE	505		
	AHETZE	506		
	ARRANGOITZ.	507		
	UZTARITZE	508		
	MUGERRE	509		
ITXASU	510			
URKETA	511			
BESKOITZE	512			
HAZPARNE	513			
MAKEA	514			
BARDOZE	516			
NAFARROA BEHEREA	ALDUDE	601		
	BIDARRAI	602		
	BAIGORRI	603		
	ARNEGI	604		
	UHARTE G.	605		
	IRISARRI	606		
	ISTURITZE	607		
	ARRUTA	608		
	ARMENDA.	609		
	ESTERENZ.	610		



Lurraldea	Herria	Kodea	Osoa	Atala
ZUBEROA	GAMARTE	611		
	LANDIBARRE	612	+	
	BEHORLEGI	613		
	ARBOTI	614		
	GARRUZE	615	+	
	JUTSI	616		
	LARZABALE	617		
	BASTIDA	618		
	PHAGOLA	701		
	DOMINTXINE	702		
	URDIÑARBE	703		
	ALTZÜRÜKÜ	704		
	LARRAÑE	705		
	ALTZAI	706		
	SOHÛTA	707		
	MUNTORI	708		
	SANTA GRAZI	709		
	ÛRRÛSTOI	710		
BARKOXE	711			
ESKIULA	712			



## **IV. Batzordea: Onomastika**



Onomastikako lan esparrua gero eta oparoagoa bihurtu zaio Euskaltzaindiari eta bere laugarren batzorde iraunkor den honek baditu luza ezinezko eginkizunak, bi aldetatik datozkionak: bere barnetik, egituratzen eta planifikatzen dituenak euskararen normalizazioa alor honetatik bideratzeko, eta kanpotikako eskakizunei so egiteko, herri administrazio desberdin, erakunde, elkarte eta hiritar orotik etorriak.

Ondoren, sailkatu eta azalduko diren ekintzak aipagarrienak dira. Bestalde, asko dira egoitza eta ordezkarietzan egiten diren lanak, buruz buru, ikustaldien bidez, edota telefonoz nahiz ziurtagiriak emanez. Nabarmenenak, udaletxe eta auzitegietatik bidaliak dira.

Batzorde honek onomastika zientziako alor desberdinak sailkatuak ditu eta horrela banatzen du ere bere langintza eta hiloroko batzorde bilkuren azterlana: leku-izenak, euskal deituren alorra, ponte-izen edo pertsona izenak eta exonomastika, besteak beste. Sail honetako bakoitzak azpibanaketa bat ere izan dezakete.

Urtean zehar hamar bilera egin ditu batzordeak, erdiak Gasteizen eta besteak Bilboko egoitzan, salbu abendukoa: azken urteotan ohi bezala, Durangon egin da Euskal Liburu Azoka egunetan.

Batzordekide batzuk herri-administrazioaren eginkizun eta lantaldeetan parte hartu dute.

Aipamen berezia eskatzen dute IV. Onomastika Jardunaldiak, Estatu Batuetako Nevadako Unibertsitatean egin zirenek. Honez gain, zenbait batzordekidek beste herrialde batzuetako

onomastika jardunaldietan parte hartu du, geroago azalduko den bezalaxe.

Onomasticon Vasconiae bildumari dagokiola, bi liburuki argitaratu dira joan den urtean. Horren berria gero emango da.

### Leku-izenak

Udalekin harreman estua duen onomastika alor honek hiru motatako laguntza eman du.

– Toponimia bilketak: Arrasate eta Eibarren egiten dihardute batzordeei aholkularitza eta jarraipen lan hurbila eskaini dizkie. Oro bat Basauriko Udalari.

– Kale-izendegigintzan: Oion, Elizondo, Donostia, Zaurutz, Gernika-Lumo, Durango eta Bergarako udalentsat.

– Herri-izen irizpenak prestatu ditu urtean zehar, herri hauentsat: Zeanuri, Gares, Zaratamo, Agoitz, Gatika eta Deustuko kasuetan. *Nafarroa* euskal izenari buruz, bere aldaki guztiekin, txosten luze bat burutu da, *Fontes Linguae Vasconum* eta *Euskera* agerkarian argitaratuko dena.

Euskal izenak berreskuratzeko ahaleginetan *Axitarate/Dos Hermanas* Nafarroa-Gipuzkoako leku-izen garrantzitsu honi buruzko txostenerako materiala bildu da. Orobat, *Atxuriaga/La Aceñaren* ordainez Enkartzioetako parke jakin bati buruzko txostena bideratu du, beste batzuen artean.

### Deiturak

Deituren alorrari dagokiola, bi bekadun, Mikel Gorrotxategi, Euskal Filologian lizenziatua, eta Txema Fernández Anakabe, Historian lizenziatua, aritu dira euskal deiturak biltze eta sailkatze lanean. Egitasmoaren helburua honako hau da: erdal grafiaz etorri izan zaizkigun euskal deiturak gure hizkuntzaren

arauetara egokitzea. Lehenengo eta behin 1700 inguruko dokumentazioa bildu zuten, deituren lekukotasuna izateko, geroago, zerrenda guzti horiek aztertzeke eta biluzteke, ordenagailuan sartuz. Behin corpus nahikoa lortuz gero, proposamenak egiten hasi dira. Guztira 27.204 sarrera daude.

Ikerketa burutu bitartean, Euskaltzaindiaren lau bulegoetara ziurtagiri eskariak eten gabe iristen dira. Guztira 700 inguru eman dira. Gehienak errazak izan badira ere, besterik gabe ebaztekoak, arazodunak edo dudazkoak ere izan dira: hauek batzordea pasatu dira, hala hola: frikari/afrikari zalantzak, hibridoak, diptongazio desberdindunak, etabar. Kasu hauetan, banan-banan aztertu dira eta irizpena erabaki.

### **Ponte-izenak**

Ponte-izen edo izen ttipien alorrak ez du egun arazo larririk sortzen, baina bai iritziak argitu beharra dago.

Adibidez, Seaskak, Iparraldeko ikastolen elkartek argitaratzen duen egutegia ez dela euskal izen ttipien zabalkunderako batere eredugarri ikusi da, kulturaren eta historiaren ondarea zaintzen ez duelako batipat.

Hipokoristikoen arazoa argitzen, kanpoko izenen euskal ordainak noiz eta nola onartu behar diren bereizten, eta izen berrien asmaketak zehazten saiatu da.

### **Exonomastika**

Exonomastikaz bi jardunaldi egin ditu lan zabal eta neketsu honi hasiera emanez, urrian, Bilboko egoitzan, eta abenduan Durangon. Bertara, batzordekideez landa, Elhuyar, Klasiakoak, S.A., EITB, IVAP-HAEE, Unibertsitate, bikoiztzaile, Biblia itzultzaile eta beste zenbait aditu deituak izan dira gai honetako alor desberdinak sailkatzeke, zerrendak aztertzeke, irizpenak finkatzeke, bibliografia ikusteko, etab.

Aurkeztutako txostenetatik, azpimarra daitezke Endrike Knörr, Alfonso Irigoien, Federiko Krutwig eta Ibon Sarasola euskaltzainenak, Elhuyarrekoa, A. Eguzkitza-X. Palacioarena, Xabier Kintanarena eta Xabier Mendigurenena.

Exotoponimoak eta exoantroponimoak bereiztu dira. Horretarako Elhuyarrek prestatutako maiz erabiltzen diren izenen zerrendak barraiatuz eta bi azpilantalde Durangon sortu dira:

– Exotoponimiarako: Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Xabier Mendiguren eta Beñat Oihartzabal jaunek lan egingo dute.

– Exoantroponimiarako: Dionisio Amundarain, Marcel Etxehandi, Anton Gurrutxaga, Xabier Mendiguren eta Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi jaunek.

Espainia eta Frantzia estatu biotako herrialde, probintzia, departamentu eta hiriburu izenen finkatze hurbilketa bat, bigarren jardunaldiko emaitzatzat jo daiteke.

### **Herri-Administraziokoak**

Hiru motatako herri-administrazioekin lankidetzara iraukorretan aritu da propioki.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusian kokaturiko erakunde desberdinek aztertu duten «Kale eta errepideetako seinale eta adierazleen hizkuntzaren azterketa eta normalizazioa» deritzan batzordean Endrike Knörr batzordeburua aritu da ordezkari gisa.

Nafarroako «Trabajos Catastrales, S.A.» enpresa publikoarentzat lantalde batek, Andres Iñigo, Jose M. Jimeno Jurío eta Patxi Salaberri batzordekideen zuzendaritzapean, herrialde horretako katastroko toponimia xehea normalizatzen jarraitu du urtean zehar.



Bizkaiko Diputazioak Foru sail guztietarako izendapen toponimikoak berrikusi, bateratu eta hautatzeko aholkularitza egin du. Horretarako ordezkari izendatua den Jose Luis Lizundia batzorde-idazkariak berrehun izenburu inguru finkatu direlarik eta bostehun bat izen begiratu.

#### **IV. Onomastika Jardunaldiak**

Bi urterik behin programatu ohi diren jardunaldiak, iaz Nevadako Unibertsitateko Renoko Campusean antolatu dira, bi ospakizunen inguruan, hots, Amerikaren V. mendeurrena eta Nevadako Unibertsitatearen Basque Studies Program-aren 25. urteurrena. Gai nagusia euskal-amerikar-filipindar antroponomia eta toponimia izan da eta bertara 19 hitzaldi eta txosten eraman dira. Partaidetza, Euskal Herriko, Hego eta Ipar Ameriketako, Britainia Handiko eta Alemaniakoa izan da.

Euskal toponimiak Ameriketan eta Filipinetan duen presentzia aztertzeaz gain, IV. Onomastika Jardunaldi hauen inguruan bildutako ikerlariak, honako ondorioak eskaini zituzten. Besteak beste, gai honen inguruko bibliografia, sare informatiko bakar batean biltzeko beharra; onomastika alorra aztertzen duten ikerlari eta erakundeen arteko koordinazioa eta, artxibategien egoera tamalgarria gogoraraziz, adituek kontsulta ditzaten, dagozkion neurriak hartu beharra; euskal leku-izena duten atzerriko herrien arteko anaikidetzearen alde agertu dira, harreman ekonomiko eta kulturalak sendotzeko bidea izan daitekeelakoan; toponimia historikoa errespetatzeko eta izen berrien egokitasuna zaintzeko, behar beharrezko jo zuten Quebec-eko «Comission de Toponymie» eta Uruguay-ko «Juntas Departamentales de Nomenclatura» antzeko erakundeak sortzea.

# IV JORNADAS DE ONOMASTICA ONOMASTIKA JARDUNALDIAK

ANTROPONIMIA Y TOPONIMIA  
VASCO-AMERICANO-FILIPINAS

EUSKAL-AMERIKAR-FILIPINDAR  
ANTROPONIMIA ETA TOPONIMIA



Reno • Nevada, Estados Unidos  
24 de septiembre de 1992

Reno • Nevada, Estatu Batuak  
1992.eko irailaren 2tik 4era

P.M. MANZA



## Beste jardunaldi zenbait

— Congr s d'Onom stica. XVII Col.loqui General de la Societat d'Onom stica delakoa egin da pasa den otsailan Bar-

celonan, Enric Moreu-Rey ikerlariaren omenez. Bertan Euskaltzaindiaren ordezkaria Ricardo Cierbide batzordekidea izan da.


– PATROM, Romania eremuko deituren bilketaren VI. Jardunaldian Alfonso Irigoien eta Ricardo Cierbide jaunek parte hartu dute. Azken honen lantaldea Arabako ordezkariaren kokatua dago.

– Burgosen egin dira Gaztela-Leongo toponimiari buruzko I. Jardunaldiak azaroan eta bertan hiru batzordekide aurkeztu dituzte txostenak: Jose M. Jimeno Jurío, Ricardo Cierbide eta Jose Luis Lizundiak.

### **Onomasticon Vasconiae**

1992en batzordearen bilduma den honetan bi liburuki plazaratu dira: Angel M. Elortegiren *Pasaiako Toponimia* eta Jose M. Jimeno Juríoren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoáin*. Aurkezpenetan, herrietako toponimia xehearen bilketek nolako garrantzi handia duten azpimarratu zuten herri horietako alkateek eta egile biek eta, Onomasticon Vasconiae ikerlariarentzat ez ezik, euskararen normalizazio eta hedapenerako, ezinbesteko tresna dela aitortu.

Sailkatu gabeko beste zenbait azterketa, aholkularitza edo irizpen egin ditu batzordeak elkarte eta hiritarren eskariz.



## **V. Batzordea: Literatura**

Batzorde honek bi azpibatzerde ditu:

- Herri-Literatura
- Literatura-Ikerketa



## Herri-Literatura

Euskaltzaindiak, bere helburuei atxekiz, ezinbestekoa du literaturaz arduratzea, beronetan dagoenez hitzaren erabilera bikaina. Eta herri-literaturaz ere arduratzen da Akademia, euskararen kasuan idatziaren aldamenean dagoen hitzezko produkzioak garrantzia duenez.

Hasieran batzorde hau Jagon sailean zegoen kokaturik. Egiteko nagusia bertsolaritzari eskainia zuen, bi alor garapen jakinera eramanez: Bertsolari txapelketa eta Xenpelar saria. Eta nahiko aitorturik dago lan ona egin zela taldean, gauzak ongi ta-tutuz eta ondorio erabakiorrak utziz egunotako bertsolaritzan.

Autonomi garaiak etorritakoan, eta antolakuntza bere onera zuzentzen hasi zenean, batzordea Iker sailean kokatu zen. Ez zion utzi Xenpelar saria antolatzeari, berau denez Erakundeak duen lehiaketarik garrantzitsuena Herri-literaturan. Baina ikerketan ezarri du taldeak bere zeregina herri-literaturarentzat axola handikoa delako.

Jardunaldi jakinetan, bi eremu dira batzordeak bereziki landu dituenak: kontapoesia eta herri-narratiba. Emaitzak *Euskera* agerkarian argitaraturik daude. Eta hurrengo gaia ere aukeraturik dago: ahozkotasuna. 1994an, mendemuga ospatzen da Manuel Lekuona jaio zela. Egokiera ezin hobea litzateke euskal ahozkolari hau gogoratzeko, eta guretzat beharrezkoa den gaia sakontzeko. Ordu ona litzateke ere ahozkotasunaz kanpoan egin ohi dena arakatzeko, eta hemen eman diren pausu berriak aintzat hartzeko.

Euskaltzaindiaren bizitzari eta eginkizunari begira beharrezkoa da batzorde honen langintza. Ikerketaz gainera, talde ho-

netako partaideek zerikusi handia dute herri-literaturan egunetik egunera ematen diren hainbat urratsetan. Talde honetako dira ikerlanetan ari direnak, lehiaketetan, epaimahaiko direnak, zabal-kunde-lanetan ari direnak, sorketa lanetan ere beren ekarria nabarmentzen dutenak.

Horiek horrela, burutu zuen azpibatzerde honek 1992ko egitasmoa, honako ekintza hauetan hezurmamitu dena urtean zehar, ekintza hauek arreta handiz prestatu eta balioztatu hileroko bileretan.

## **Herri-literaturari buruzko II. Jardunaldiak: Herri-narratiba**

Donostian, EUTGn, izan dira Herri-literaturari buruzko II. Jardunaldiak, martxoaren 25, 26 eta 27an, herri-narratiba aztergai, honako hitzaldi eta txostenen arabera:

### *Hitzaldiak:*

Jose M. Satrustegik: "Herri narratibaren eremua".

Martin Etxebarria: "Euskal ipuin harrigarriak".

Ana Toledo: "Azterbideak".

Maxime Chevalier: "Varia fortuna del cuento tradicional en el Siglo de Oro".

Julio Camarena: "Las peculiaridades de la cuentística vasca".

Juan Garmendia: "Euskal leiendak".

Antonio Zavala: "Herri-kontakizunak".

Bernardo Atxaga: "Herri-narratibagintza eta literatura".

### *Txostenak*

Juan M. Etxebarria: "Ahozkoaren bilketa".

Juan M. Lekuona: "Gipuzkoako herri-ipuin idatziak".

Alfonso Irigoyen: "Aulestiko ipuin baten transkripzioa".



Emile Larre: "Iparraldeko herri-ipoen idatziak".

Xabier Kalzagorta: "Bizkaiko herri-ipoen idatziak".

Luis M. Larringan: "Komunikazio-egoera eta praktika linguistikoa".

Igone Etxebarria: "Herri-ipoen baten aldaerak".

### **Jardunaldion azken ondorioak**

Honako ondorio hauek atera ziren Jardunaldien bukaran, martxoaren 27an. Bertan irakurri zituen Literatura batzordeburu den Juan M. Lekuona jaunak:

1. Herri-literaturako adar garrantzitsua, eta agian gaur, ez ikerketan eta ez herri-erabileran, behar adinbateko oihartzunik ez duena, harrotu nahi genuen. Eta egunotako ekarria ikusirik, emaitza oparoak jaso ditugu, ertzak eta ikuspegi zabalak eman zaizkigu, ideia eraginkorrek geureganatu ditugu. Oso baikorra izan da jaso dugun ondarea.

2. Hemen hasitako langintzak jarraipen bat behar du. Ikertzaileek jarraituko dute berean eta, behar bada, taldeak elkarlanean egindako ikerketa legoke jarraitu beharra.

3. Herri-literaturako batzordea dugu horrelako zereginen ari dena, eta talde honek azterketa egin beharra du Jardunaldi hauei buruz, egunotako lana balioztatzeko, eta gerora begira etor litezkeen lanak bateratzeko. Eta hau bi alorretan:

— Normalizazioan: gaiak mugatu eta hiztegia finkatu beharra dago.

— Ikerketan: ekintza hau aurrera eramateko beharra ikusi da. Garbiago dugu zer egin behar dugun ibiltzen hasteko, elkarlanean hasi ere, bidea badugu.

4. Jardunaldioi esker, jadanik, zehatzago badakigu gaiak merezi duela eta, beraz, pozik lotuko gatzazkio eginkizun honi.

5. Lan hauek aurreratuz goazen eran, euskaldunok orain garbiago dakigu, geure herri-narratibatik izango dugula zer eskaini beste herrialdeetan lan beretan ari diren ikertzaileei.

6. Hauek dira ekitaldiok bukatzeko une honetan ikusten ditugun alderdiak. Eta besterik gabe Jardunaldiok bukatutzat ematen ditugu.

### **Jardunaldien balorapena**

Jardunaldiak burututa, honako puntu hauek jo ditu garrantzizkoen herri-literatura azpibatzordeak, bigarrenok balioztatu dituenean:

1. Entzulego ugaria (100dik gora lagun) eta berria bilduda, ikaslego unibertsitaria gehiena.

2. Plaza berria aurkitu zaio herri-literaturari, geroaren atea zabalduz.

3. Asmatu egin da mezuarekin ere: gaiak zabalak izan dira eta herri-narratibaren eremu gehiena hartu dute. Orobat asmatu da kokapenarekin.

4. Emaileekin ere asmatu egin da: biziki azpimarratu du azpibatzorde honek kanpokoak ekarri izanaren egokitasuna eta hurrengorako ere alderdi hau ondo zaindu beharra.

5. Oihartzun egokia izan dute Jardunaldiok. Esku zabal jokatu dute komunikabideek, hala idatziek nola ikusentzuzkoek ere.

### **Argitarapenak**

Arreta berezia jarri du azpibatzorde honek II. Jardunaldietako txostenak eta ponentziak bildu eta Argitarapenen batzordearen esku uzten, lehenbailehen argitara daitezen. Argitara ere hala argitara dira *Euskera* agerkariaren 37. liburukian (1992,1), 321-541 orrialdeetan.

**Kanpo-harremanak**

Hainbat harreman izan du azpibatzerde honek aurreko urteetako lanaren harian eta batipat Jardunaldien inguruan. Besteak beste, Julio Camarena Laucirica eta Maxime Chevalier-ekin, lehenengoa C.S.I.C.eko partaide eta bigarrena Bordeleko unibertsitateko irakasle. Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko zenbait irakaslerekin eta euskal kultur munduko lankiderekin ere izan ditu harremanak. Era berean, lankide izan ditugu hileroko zenbait bileratan Martin Etxeberria Zuloaga eta Juan Manuel Etxebarria Ayesta, herri-narratibagintzan adituak direnak.

**Kanpo-lankidetzak**

Ugaria izan da han eta hemen Herri-literatura azpibatzerde-  
dekideen lankidetzak eta partaidetzak hainbat kultur ekintzatan:  
bertsolari-txapelketako epaimahaietan (Abel Muniategi, Araba-  
Bizkaiko txapelketan; Pello Esnal, Zarauzko Lizardi sarian, etab.,  
bertso-paper lehiaketetan (Jose M. Aranalde, Abel Muniategi,  
Juan Mari Lekuona eta Antton Aranburu, VIII. Basarri sarian,  
V. Orixe sarian, Zampirain anaiak sarian, etab.).

Bestalde, hor dago Antonio Zavala bertsoak biltzen eta argitaratzen eta herri-narratibagintza suspertzen egiten ari den esker-gaitza. Bost ale mardul argitara ditu 1992an. Era berean, aipagarriak dira Juan Mari Lekuonak, Emile Larrek, Jesus Mari Etxezarretak egindako lanak.


Azpibatzerde honek gizartean dituen oihartzunaren eta harreraren lekuko dira, bestak beste, bertsolariak bere urteroko egunean 1992an Emile Larreri egindako omenaldia.



## **Literatura-Ikerketa**



1992. urtean Literatura-Ikerketa azpibatzerdeak helburu nagusi bi izan ditu: batetik, Oihenarten omenez Maulen eta Donapaleun ospaturiko Biltzarrean parte berezia izatea, eta bestetik, Literatura hiztegia bideratzea, alor kritikoeta beharrezkoak ditugun hitzen finkatzea eta zehaztea dela hiztegi honen helburua.



Guztira zazpi lan biltzar ospatu ditu Literatura Ikerketa azpibatzerdeak, eta gutxi gora behera urte honetarako jarritako helburuak bete egin ditu. Aurreko asmoetan Literatura hiztegiaren finkapena izan zuen helburu nagusizat, eta horrela gertatu da. Hemendik aurrera Literatura hiztegiaren idazketa prozesuan sartzen da Literatura Ikerketa azpibatzerdea.

### **Oihenarten omenezko Biltzarra**

Oihenarten IV. mendeurrena dela eta hurrengoko hitzal-diak prestatu zituzten azpibatzerdeko sailkideek: Aurelia Arkotxa, Jean Haritschelhar, Luis M. Mujika, Txomin Peillen eta Patri Urkizu.

### **Literatura-hiztegia**

Literatura-Ikerketa azpibatzerdeak eginkizun berezirik jarri badio bere buruari, horixe izan da: Literatura hiztegi finkatua idaztea. Azken bi urteotan lan horretan jardun du. Gauza jakina da, euskal kritika eta literatura munduan badirela ongi zehaztu gabeko kontzeptuak, metrika aldetik dela, genero aldetik dela, eta halaber, kontzeptuak argi egon gabe, arrunta da finkatu gabeko hiztegia erabiltzea horrelakoetan: izen desberdinak Iparraldean eta Hegoaldean, izen berdinak kontzeptu desberdin bi adieraztea eta abar.

Hiztegi osoa eta arauemailea osatu nahi luke azpibatzerdeak. Eta arauemailea adiera bitan, kontzeptuen argibidea ematen duelako, batetik, eta aukeraturiko hitza batuaren mesedetan izatea, bestetik.

1992. urte honetan literatura hiztegiaren zerrenda burutu du azpibatzerdeak. Zerrenda hori osatzeko hiru bide desberdin jarraitu ditu azpibatzerdeak:

– Euskal kritikaren historiak eman dituen hitzak batu ditu lehenik.



– Generoka aztertu ditu literatura genero nagusiak, eta horietan agertzen diren hitz arruntenak jaso.

– Azpibatzerdeko kide bakoitzak, bere espezialitatearen arabera, bere sailean gehien erabiltzen diren hitzen zerrenda osatu du.

Lorturiko emankizuna, merkatuan diren beste hiztegi batzuekin parekatu du azpibatzerdeak. Horrela 1100 hitz, gutxi gora behera duen hiztegi berezia, alorrari lotua, lortu du.

Gerora bere lana, zerrendari lotu zaio. Banan/banan aztertu du hitz bakoitza azpibatzerdeak. Zerrenda zehatzagotzea zuen lantzat. Errepikapenak kendu ditu, euskal hitzen eta mailleguen arteko oreka lortu nahi izan da, euskal hitzen eta kontzeptuen arteko arazoak ere kontutan hartu ditu. Hitzen izaera, joera, erabilera, eta adiera aztertu ditu batzarretan batzerdeak.



**Batzorde suntsikorrak**



**Euskara Batuko batzordea**




Batzorde hau ia ia ilero bildu da, Euskaltzaindiak egin dituen egun eta toki beretan. Bilera hauetan euskara batuak aurrera egiteko eman beharko lituzkeen urratsak aztertu dira eta gomendio proposamenak egin, gero osoko bilkuretan eztabaidatzeko. Batzordeak erabili duen prozedura honako hau izan da: batzordekide batek alde aurretik zehazturiko puntu bati buruzko txosten bat prestatzen du. Txosten hori batzordekideen artean eztabaidatu ondoren Euskaltzaindian aurkezten da. Euskaltzaindikoko egoitzatik euskaltzain oso guztei, eta hartako izena eman duten euskaltzain urgazle eta besteko euskaltzale batzuei igortzen zaie proposamena eta hauek beren oharrak egiteko denbora eman. Ohar hauek guztiak berriro eskuratu ondoren, EBBn aztertzen da eta azken proposamena osoko bilkurara eramaten da. Euskaltzaindiak, hala baderitza, gomendio edo erabakiaren proposamena onartzen du eztabaida egin ondoren.

Bilereetan aztertu diren gaiak honakook izan dira:

Urtean zehar aztertu beharko liratekeen gaiak; txostenak eztabaidatzeko prozedura; proposamen txostenak: *nor nahi/nor-nahi/nor-nahi; nor/nortzuk; zer/zertzuk; usain/usai, arrain/arrai; hau guztia/guzti hau; nire/nere; bait du/baitu; arazi/erazi; aurrekalde/aurrealde; hikako adizkaiak; hitz elkarketan osaera eta idazkera* (LEF batzordeak prestatu). Halaber, bilera horietan Euskaltzaindiaren 75. urteurrena dela eta, hurrengo hilabeteetan egingo diren ekitaldi batzuk aztertzen hasia da.

EBBk prestatu ditu, gainera, 1992an argitara eman diren *Euskaltzaindiaren Gomendioak eta Erabakiak (I eta II)* liburuxkak. Orohar, EBBren alde aurretiko asmoak ongi bete direla esan daiteke.





## **Euskaltzaindiaren XII. Biltzarra**



#### **Oihenarten IV. Mendeurrena**

Muskildiko herritarrek prestatuturiko «Allande Oihenart, bizi ürrats» ikusgarriak eman dio hasiera Euskaltzaindiak Oihenarten IV. mendeurrena dela eta Maule eta Donapaleun, irailaren 21etik 25era, ospatu duen XII. Biltzarrari.

Biltzarraren hasierako ospakizun irekia Mauleko Udaletxean egin da. Euskaltzain oso, zenbait urgazle, hizlari eta txostengileekin batera, hiriko auzapeza Jean Lougarot; Donapauleko mera Beñat Lasalle; Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia; Jose Luis Mendoza, Nafarroako Gobernuako Hizkuntz Politikarako zuzendaria, eta Hego Euskal Herriko Foru Aldundien ordezkaria, Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Foru Diputazioko Kultur diputatua, izan dira. Akitaniako Kontseilu Orokorraren buru den François Bayrou jaunak bere ezin etorria adierazi du.

Euskaltzaindiak Iparraldean ospatzen duen lehenengo Biltzar honen lan saio akademikoa Maulen bertan, bi egunez, Oihenart hizkuntzalari eta idazlea izan da aztergai. Ondoren, Donapaleun azken bi egunetan bildu diren hizlariak Oihenart historiagilearen inguruan aritu dira honako hitzaldi eta txostenen arabera:

##### *Hitzaldiak:*

Beñat Oihartzabal: “Oihenart, euskal gramatikarien aintzindari ezezaguna”.

Miren Azkarate: “Oihenarten lexiko-ikerkuntza”.

Rosa Miren Pagola: “Oihenarten hizkuntz ideiak”.

Jean-Baptiste Orpustan: “Gramatika eta prosodia Oihenarten olerkietan”.

eta “A. Oihenart eta B. Etxepare”.

Alfonso Irigoien: “Gnomica oihenartiana”.

Jean Haritschelhar: “Emaztea Oihenarten atsotizetan”.

Patri Urkizu: “Oihenarten atsotizak eta poetika berrirakurriz”.

Andres Urrutia: “Oihenart: Euskal errefrauak eta Foru Zuzenbidea”.

Luis M. Mujika: “Oihenarten amodiozko neurtitzen tematikoa”.

Aurelia Arkotxa: “Emaztea Oihenarten olerkietan”.

Renée Mussot-Goulard: “Le livre de la *Notitia Utriusque Vasconiae*: la méthode historique d’Oihenart”.

Manex Goihenetxe: “Oihenarten historiografiaren analisi kritikoa edo ikerketa epistemologikoa”.

Ricardo Cierbide: “Fuentes históricas de la *Notitia Utriusque Vasconiae* y papeles inéditos de Arnaud d’Oihenart”.

Josette Pontet: “L’*époque* d’Oihenart”.

Joseba Agirreazkuenaga: “Oihenarten Vasconia kontzeptuaren ibilbidea eta eragina euskal historiografian”.

Anne Zink: “La Soule au temps d’Oyhénart”.

*Txostenak:*

Patxi Altuna: 1. “Oihenarteren neurtitzetako aditegia”; 2. “Oihenarten euskal prosodia”; 3. “Lapurtarrak Oihenartekin hasarre?”.

Emiliana Ramos: “Consideraciones sobre el léxico pretendidamente vasco de la *Notitia*”.

E. Alkiza/N. Arrizabalaga: “Neurtitzetako grafia”.

Xarles Videgain: “Fraseologiaz”.

Estibaliz Bedialauneta: “Comentarios filológico-románicos a la obra de Arnaud d’Oihenart”.

Txomin Peillen: “Oihenarten eragina Egiategi eta zube-rotar idazleengan”.

Renaud d’Elissagaray: “Aperçu sur un historien disparu du Pays Basque et d’Oihenart: Jean de Jaurgain”.

Olivier Ribeton: “La Bibliothèque de Gramont”.

### **Biltzarraren ondorioak**

Oihenarten IV. mendeurrena ospatuz antolatutako XII. Biltzarraren amaieran, Maulen, irailaren 25ean, honako puntuak plazaratu dira:

1. Herri Aginteei (Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernu eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru diputazioei), Bordeleko Unibertsitateari (CNRS-URA 1055), Euskal Herriko Unibertsitateari, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrari, Maule eta Donapaleuko udalei, eskerrik beroenak agertzen dizkie Euskal-tzaindiak eman duten babes edo laguntzagarriak.

2. Halaber, Biltzarrean partaide edo laguntzaile izan diren irakasle, ikerle, azpiegitura eta prentsa zerbitzuko ei eskerroneko aitormena egiten die. Ahantzi ezina da, puntu honetan, komunikabideek Oihenarten omenaldiari eta Biltzar honi eman dieten oihartzun eta zabalkundea, horregatik esker berezia zor zaielarik. Aipatzeko da hemen Muskildikoek eskainitako Oihenarten ikus-garria.

3. Zortzi unibertsitateetako ikerle eta irakasle bakoitzaren emaitza interesgarri, pozgarria eta ugaria izan da: metodologia desberdinak agertu eta erabili dira gaiak eskatzen duenaren eta bakoitzaren espezialitatearen arabera. Aurrerapausu bat eman da Oihenarti buruzko ikuspegian, lehengo ikertzaile sonatuenetatik abiatuz eta urrats berriak markatuz; eta ikusi ere da areagotu egin dela Oihenartekiko atxekimena eta bere bidearekiko onarpena -ikuspegi gaurkotu batetik-, nahiz eta bi gauza horiek, historian zehar, beti hala gertatu ez diren.



## **VI. Jagon Saila**





Euskaltzaindiaren Jagon Sailak Erakundearen sorreran du jatorria, duela 75 urte. Gainera, 573/1972 Erret Dekretuaz gero, Arautegiak jasotzen ditu, besteak beste, honako jagote helburuok: e) euskararen enplegua aitzinatzea eta f) hizkuntzaren eskubideak zaintzea.

Hizkuntz eskubideen alorrean, batetik, eta euskararen kalitatearenean, bestetik, jardun du Sail honek. Helburu hauek kontuan izanik, prentsa-dossierrak prestatu ditu hilorro, euskarari dagozkion materialak bilduz, jagote edo gizartearen ikuspegitik Euskal Herriko eta atzerriko prentsan agertuak.

Erakunde publiko zein pribatuekiko harremanez arduratu da halaber, Sailarekin zerkusia duen orotan. Aipatzekoa da, ildo honetatik, bibliografia eta dokumentazio datu-basea, 1992an sortua.

Azkenik, esan behar da Ordezkaritzek bideratu dituztela, bakoitzak bere herrialdean, saileko eginkizun batzuk.

### **Hizkuntz eskubideak**

Hizkuntz eskubideez, sailkideek, orokorki edota bakoitzak bere herrialdean, jendartean hitz egin dute edo zenbait batzorde, lan talde eta eztabaidatan parte hartu. Besteak beste, aipa daitezke Arabako institutu eta Lanbide eskoletako D ereduko irakas-tokien alde egindako ahaleginak, edota *Araba euskaraz* eguna zela-ta, zenbait alderdi politiko eta elkarteren jarrez, e.a.

Nafarroan, orobat, ordezkarari eta sailkide denak Foru Par-lamentuaren Euskararako batzorde berezian parte hartu du eta

txosten bat aurkeztu. Gai hori berori dela-ta, Euskaltzaindiak gutun bat egin die Nafarroako alderdi guztiei, euskararen lege-statusa aldatzeko haien atxikimenduaren eske.

Gure Erakundea arduratu da, era berean, Euskal Herria Irratiaren lege baimenaz.



Akitaniako Euskal Herriari dagokiola, Euskaltzaindia saiatu da bere ahaleaginean, hezkuntzan, administrazioan eta komunikabideetan euskarari zor zaion tokia eman dakion. Bestek beste direla, Frantziako hezkuntz Administrazioaren eta Seaskaren artean hitzarmenaren sinatzean, Baionako Suprefeturan, abenduan, izan da ordezkari bat.

Idatziz, Frantziako Errepublikaren presidenteari eskatu zaio Europako Hizkuntzen Gutunarentzako atxikimendua. Kopia bana dagozkion Ministeritzako jabedunei bidali zaie.

## **Hizkuntzaren kalitatea**

Jagon Saila hizkuntzaren zuzentasun eta kalitateaz arduratu da, batez ere komunikabideen eremuan, gai honi buruzko oharrek bidaliz. Ildo honetan, foru administrazioekin eta udal batzuekin izan ditu harremanak, hala-holako bideseinaleak, kartelak, iragarkiak direla-ta, irtenbide egokia proposatuz eta aholkuak emanez, kasu hauetan ez ezik, bai eta gure laguntza bila etorri diren administrazio guztiei, tokikoak edo ez.

Aipagarria da Gobernu Zentralaren Euskal Autonomi Elkartean duen Ordezkaritzari emandako laguntza ugaria.

## **Dokumentazioa**

Prensa dossierrak sailaren ibilerarako tresna garrantzitsua izan dira. Alde batetik, hizkuntzaren jagoteaz edo gizartearen ikuspuntutik Euskal Herrian eta atzerrian argitaratu dena bildu da. Bestetik, euskaltzainen eta gainerako ikastunen eskurako lanabesa izan dira. Lehen aipatu dugun hizkuntzaren kalitatea neurtzeko ere balio izan dute, eta horri dagokiolarik batz besteko hiritarraren sentiberatasuna.

Lerro berri bat zabaldu da, oinarrizko bibliografi basea eta dokumentazio osagarria sortzean. Hau guztiz beharrezkoa da gure ekintzak aurrera eramateko eta beste erakundeekiko harremanetarako. *Berri paperak*, *Mercator*, *EKBerriak*, lege testuak eta beste dira aldioro jasotzen dugun materiala.

## **Harremanak**

Harremanei dagokiela, loturak izan dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Orokorra, Helduen Alfabetatzeko eta Euskalduntzeko Erakundea, Herri Arduraritzarako Euskal Erakundea, Diputazioak, Euskal Kulturaren Erakundea, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak, Eusko Ikaskun-

tza, eta beste elkarteak, hala nola EKB, AEK, IKA, IKAS, Landazuri Elkartea eta toki eremukoak, zeinei behar izan duten laguntza eman zaie.

### **Ordezkaritzak**

Ordezkaritzek *Oroit-Idazki* honetan kapitulu berezia duten arren, agian komeni da barne-erregelak 34. artikulua dioena jasotzea: «Ordezkaritzei dagokie neurri handi batean -nahiz eta ez berei bakarrik-, bakoitzak bere eskualdean, Euskaltzaindiaren bi Sail nagusietarik baten arta izatea: hots, hizkuntzaren Jagon Sailarena».

Euskal Herriaren lurralde-antolaketatik, Sailak eta ordezkaritzek, eta alderantziz, jagote-ekintza batzuk eraman dituzte aurrera. Haietatik zenbait beren tokian ageri dira xehekiroago.

Azkenik, Sailak egitarau baten zirriborroa egin du, Hizkuntzaren Jagoteaz I. Jardunaldiena. Jardunaldi hauek toki nabarmena izango dute Euskaltzaindiaren 75. urteurren ospakizunetan. Hauexek izango dira atalak:

1. Antzeko izaera duten atzerriko erakundeez eta esperientziaz argibidea.
2. Euskal Herriko erakunde ofizialen ekarpena.
3. Arazo hauek iraganean.
4. Ondorioak.

## **VII. Akademi-zerbitzuak**



**Egoitza eta ordezkariak**





### **Euskaltzaindiaren administrazioa**

Euskaltzaindiak, Egoitzan eta Ordezkaritzetan, bere lana bideratzen du barnerako ez ezik, kanporako ere. Azken atal hau urtetik urtera handituz joan da. Kontuan hartu behar dira, bate-tik, ikerleen eskakizunak, gutunez datozenak edo buruz buru agertzen direnak. Bestalde, ez dira ahaztu behar erakunde publi-ko zein pribatuen eskariak, kontsultak eta abar. Gizabanakoak dira azkenik parte handiena egiten dutenak: toki- eta pertsona-izenez agiriak, testuen egokitasuna, bibliografi eskeak, gramati-karekiko zalantzak, hitzen eta esapideen gainean argibideak, itzulpenetarako orientabideak, ikasbideen berri, etab. Nabarmena da Euskaltzaindiak erantzuna eman behar diola guzti honi, bere eginkizunak beteko baditu.

Urteak dira, Akademiak Ordezkaritzak dituela. Zaharrena Donostiakoa da. Gerokoak dira Gasteiz eta Iruñekoak. Hirurak, Diputazioen jabego dira. Berriena, Baionakoa da.

Nahiz Euskaltzaindiak nagusiki batzordeka lan egiten duen, lan hau, jagon zein ikerrean, Egoitza eta Ordezkaritzen az-piegituraz bideratzen da. Horrela, besteak beste, Egoitza eta Or-dezkaritzon bidez Euskaltzaindiak zerbitzu hurbileko bat eskain-tzen die erakunde eta hiritarrei. Baita ere tokian tokiko ordezkatzeko eginkizunak haietatik eramaten dira.



**Azkue Biblioteka**



### Inaugurazioa

Plaza Barriko egoitzan, ekainaren 26an, osoen bilkurarekin batera egin da bibliotekaren inaugurazioa. Agian horixe izan da egoitzaren 1992 urteko gertaera nagusia. *Eusker*a agerkarian azaltzen den kronika luzeagoa laburbilduz ematen dira Oroitidazki honetan daturik aipagarrienak. Ekitaldiko mahaiburuan zeuden Zuzendaritzakideak eta Bizkaiko Foru Diputazioaren Kulturarako diputatu den Tomas Uribeetxebarria jauna. Bertan



Azkue Biblioteka estrenatzean. (Egoitza, 1992, VI, 26).

Zutik: P. Xarritton, Jon Bilbao, Iratzeder eta L. Villasante.

Eserita: A. Irigoien, J. M. Lekuona, J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Satrustegi eta J. A. Arana Martija.

ziren, halaber, euskaltzain oso, ohorezko eta urgazle asko, Herri Aginteen ordezkari, beste erakunde eta kultura elkarteetako anitz gonbitatuak eta hainbat komunikabide. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak egin ditu lehen hitzak, ikerketa alorrean Bibliotekak duten garrantzia azpimarratuz, eta zehazki Azkue Bibliotekak ikerleei eskaintzen diena goraiatuz. Jose Antonio Arana Martija bibliotekariak hitzaldi bat eman du gero «Azkue Bibliotekaren historiaz» tituluarekin. Jarraian, ekintzara etorriek erakusketan azaltzen diren liburu eta eskuizkribu baliotsuak ikusteko parada izan dute eta etxearen goiko hiru solairuetan dauden biblioteka eta artxiboko instalazio eta ondarea. Ikustaldiaren une batean, Bilboko Astarloa liburudendaren jabea den Javier Madariaga jaunak Darrigol-en *Dissertation critique eta apologétique sur la langue basque* lanaren (1827) bi aleren opari egin zion Bibliotekarako euskaltzainburuari.

### Liburu eta aldizkarien sarrera

Biblioteka 1978 urtearen azkenaldian berreratu zenetik 84.992 liburu, aldizkari eta dokumentuen sarrerak erregistratu dira, urtero, bataz besteko 6.070 ale sartzen direlarik, egunkariak, kartelak eta bestelakoak kontutan hartu gabe. Azken 6 urteei dagokielarik, hauek dira sarreraren datuak:

Urtea	Erosketa/Harpidetza		Dohainik/Trukez		Guztira	
	Aleak	Balioa	Aleak	Balioa	Aleak	Balioa
1987	1.590	1.735.140	6.074	1.773.965	7.664	3.509.105
1988	753	1.448.938	4.675	1.819.635	5.428	3.268.573
1989	3.158	4.457.911	4.006	1.545.154	7.164	6.003.065
1990	1.032	2.485.199	4.887	3.206.283	5.919	5.691.482
1991	860	1.056.823	4.585	1.720.245	5.445	2.77.068
1992	1.097	3.583.222	4.539	1.825.225	5.636	5.408.447
	11.506	14.767.233	36.964	11.890.507	48.470	26.657.740

Aurten, hots, 1992an, lortutakoetatik honako hauek aipatzea merezi dute:

- Cardaveraz-en *San Ignacioren vicitza*, eskuizkribu originala.

- Txomin Agirre-ren *Sermoiak*.
- XVIII. mendeko Bizkaiko Sutegi errolden mikrofilmeak.
- Gutenberg-en *Biblia*.
- *Imago Mundi* liburu bakanen facsimileak (1483) eta honako hauen argitarapen baliotsuak:
- *Agricolaren De re metallica* (1556).
- Duvoisin-en *Etude sur la déclinaison basque* (1866).
- Van Eys-en *Essai de grammaire de la langue basque* (1867).
- Hovelacque eta Vinson-en *Etudes de linguistique et d'ethnographie* (1878).
- Ribary eta Vinson-en *Essai sur la langue basque* (1877).
- Darrigol-en *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque* (1827).

Koadernaketari dagokiolarik egunkari eta aldizkariez gain, Bibliotekan dauden Bonaparteren argitarapen guztiei koadernaketa berria egin zaie.

### **Egoitza berria**

Erribera kaleko egoitza historikoan zegoen material guztia 1991an ekarri zen, baina Etxebarriko gordailuan gordetzen ziren batzuk ere aldizka Biblioteka berrira ekarriak izan dira. Honek dituen gelen banaketa eta lekuneak kontutan izanik, liburuak eta bestelakoak gaika kokatzea erabaki zen, katalogazioak eskatzen dituen xehetasunetarako gela bakoitzari bizirik ez dagoen euskaltzain edo euskalari entzutetsu baten izena jarritz. Lapurketen kontrako sistemaren arabera, gela gehienetan 21.300 zinta magnetikoak jarri ziren liburuetan, lan hau oraindik bukatu gabe dagoelarik. Higrometroak jarri ziren gela guztietan.

## **Fonoteka**

Soinu eskola eta etxe profesionaletan hainbat kontsulta egin arren, zinta arruntetatik euskarri iraunkoragoetara grabazioak pasatzeko arazoa ezin izan da konpondu, horretarako behar den inztalazioak eta eskulanak kostu handiegia duelako eta Euskaltzaindiak duen aurrekontua ikarragarririo gaintuko luke-lako. Fonoteka gelan kokatu dira apalategiak eta bertan taxutu dira Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren 2.400 zinta eta bestelako grabazioak eta bideoak. Dohainik eskuratutako grabazioen artean aipatu behar dira Koldo Biguri jaunak emandakoak.

## **Informatizazioa**

Edozein liburutegirentzat oso garrantzitsua da informatizazioa. Alor hau atzeratu da herri administrazioen zerbitzu informatikoen aldetik eta beste etxe profesional batzuetatik ezin izan delako informatizazio egokirik egin. Azkenean, Madrileko Kultura Ministeritzak gomendaturiko sistema onartu zen, hots, ABSYS programa. Geroztik bibliotekan eta artxiboan sartu diren ale guztien aurre-katalogazioa egin da, fitxa laburrak osatuz, eta fitxa bibliografiko osoa betez, 900 liburutik gora sartu dira ordenagailuan. Liburu bakoitzari dagokion «marra-kodea» jarri zaio lapitz irakurlearen bidez fitxa bibliografiko osoa pantailan ikus daitekelarik.

## **Erakusketak**

Inaugurazio egunerako prestatu du Azkue Bibliotekak 160 liburu eta eskuizkriburen erakusketa. Erakundeak dituenetatik hautatuak, euskal kultura eta mundu zabaleko kulturaz bibliotekan zeuden ikusgarri. Erakusketa honen katalogo egoki bat prestatu du Azkue Bibliotekak, *Euskera* agerkarian ere agertuko dena.

Bizkaiko Artxibo foralak Lekeitio hiriaren historiaz prestatu zuen erakusketan parte hartu du Azkue Bibliotekak maileguz liburuak utziz. Arrigorriagako Kultur Etxeak, Jose Antonio



Uriarte Bonaparteren itzultzaileari eskainitako erakusketan ere parte hartu du Azkue Bibliotekak, ekintzetan bibliotekariak hitzaldi bat eman zuelarik.

### **Bisitariak**

HABE, AEK, IRALE, ikastola, eskola, ikastetxe, institutu eta beste kultur elkarteetako taldeak etortzen dira asteoro egoitzara, bereziki biblioteka ikustera, zeinei harrera egin eta azalpenak ematen dizkiete Jose Luis Lizundia eta Josune Olabarriak. Euskal Herrian mintza praktikak egiten ari zen Argentinako gazte talde baten bisita nabarmendu behar da, baita Kataluniako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzaren kideak, eta Tirolen Hegoaldeko Bolzanoko parlamentariak ere. Gizabanakoen artean honako hauen bisitak aipa daitezke: Noh Hyung Nam Koreako irakaslea, British Libraryko Jeffrey West, Hans Mukarowsky (Viena) eta Jan Braun (Varsovia), eta beste.

### **Egitura**

Langilego finkoak ez du aldaketarik izan, nahiz eta katalogazio lanetarako urte beterako hautatua izan den teknikaria hitzartuta izan. Aurrekontuaren murrizketak direla eta, egoitzaren sarreran atezain bakarra goizeko orduetarako hitzartu behar izan denez, halaberrez, goizeko 8etatik arratsaldeko 3arte Biblioteka ikerle eta irakurleentzat zabaltzea erabaki da.



## **Argitarapenak**

Batzorde honek bi azpibatzorde ditu:


- Argitarapen batzordea
- Argitarapen Banaketaren zerbitzua



### Argitarapen batzordea

Euskaltzaindiak, 1992. urtean, batzorde honen ardurapean honako liburukiok argitaratu ditu, hots:

- *Euskera* (1992,1).
- *Euskera* (1992,2).
- *Luis Villasanteri* omenaldia. Iker 6. 32 euskaltzain, urgazle eta batzordeetako kideek Euskaltzainburu ohiaren omenez burututako ikerketa-emaizta.



- *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Iker 7. Euskaltzaindiak antolaturiko XI. Biltzar Nagusia Europako unibertsitatetan dialektologiaz arduratzen diren irakasleen/ikerleen ikerketa-emaitza.
- *Pasaiako toponimia*. Onomasticon Vasconiae 8. Angel M. Elortegi Bilbaok prestatua. Pasaiaiko Udalarekin koe-dizioz argitaratua.
- *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain*. Onomasticon Vasconiae 9. Jose M. Jimeno Juríok paratua. Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin argitaratua.
- *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Hitz Elkarketa/4. LEF batzordearen emaitza. Euskaltzaindiaren gomen-dio-arauak. Mikel Zalbidek paratua.
- *Morfología del verbo auxiliar vizcaino (I-II)*. Bi liburuki. Pedro de Yrizar jaunak prestatua. Bilbao Bizkaia Kutxaren babespean argitarazia.
- *Zentzu antzaldatuén poemategia*. Xabier Lete. Felipe Arrese y Beitia saria, 1991. Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa.
- *Saint-Cyran (Jainkoa gorderik)*. Luis Haranburu Altuna. Toribio Alzaga saria, 1991. Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa.
- *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak (1811-1858)*. Patri Urkizu. Mikel Zarate saria, 1991. Euskaltzaindia-Bilbao Bizkaia Kutxa.
- *Argitarapenen katalogoa*.
- *Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia (1991)*.

**Argitarapenen banaketa**





Argitarapen Banaketa zerbitzu hau Argitarapenen eremuko azpieremu bat da eta beronen eginkizuna *Euskera* agerkaria eta Euskaltzaindiak argitaratzen dituen liburuak banatzea da.

*Euskera* agerkariaren harpidedunen kopurua 500 bat dira. Urteoro hiru liburuki ateratzen dira. Truke-zerbitzua ehundik gora elkarte edo erakunderekin egiten da. Kasu batzuetan *Euskera* nahiz beste argitarapen batzuk ere jasotzen dituzte; haietatik 30 Akademiak argitaratzen duen guztia jasotzen dute.

1992. urtean 10.600 ale saldu dira. Dohain eta trukean 4.000, urteoro bezala banatu dira. Euskaltzaindiaren zerbitzu hau bi Azoka edo Erakusketatara joan da. Batetik, ekainaren 22tik 26ra Feria Internacional del libro, LIBER 92'era. Madrilgo Parque Juan Carlos I deritzan erakustazokan egin da. Eusko Jaurlearitzak *Euskadi* izenez denda bat jarri du erakusketa honetarako eta beste zenbait erakunderen artean kokatu da. Bertara zerbitzu honen arduradun den Rosa M. Arza, Rikardo Badiola argitarapen-eragile eta batzordeko idazkaria eta Nere Altuna Azkue Biblioteka-ko teknikaria joan dira.

Liber'92 azokak argialetxe eta banaketa-etxeekin hizketatzeko aukera eskaini du gainera. Bi alor hauetan gertatu diren informatika aurrerapenak ezagutzeko eta aztertze bidea eman du eta orobat unibertsitate, erakunde eta argialetxeekin, Espainiako edo kanpokoekin, harremanak egin edo estutu ahal izan dira. Argitarapen truke berriak garatu dira era horretara.

Abenduan izan da Zerbitzu honek parte hartu duen bigarren azoka, hain zuzen, XXVII. Liburu eta Disko Azoka, Durangon egiten dena. Bertan bi standekin parte hartu du. Hara 1.000 liburu, eta 80 argitarapen eraman dira. Euskal Herriko

Azoka nagusia den honetaz baliaturik, urtean zehar egindako argitarapen berrien aurkezpena eginkizun nagusi bi hauek landa, banaketa honek Eusko Jaurlaritzako HPIN, Unibertsitate eta Euskaltzaindiak bera antolaturiko zenbait jardunaldi eta ekintzatarata liburuak bidali ditu, erakusgarri gisa.

## **Bestelako zerbitzuak**



1992. urtean zenbait itzulpen burutu edo zuzendu dira bai Egoitzan argitarapenen-eragilearen eskutik, eta bai Ordezkaritzetatik. Egindako itzulpen eta kontsulta gehienak hurrengo erara sailka ditzakegu, hots:

### **Erakundeak**

Gobernu Zentralak (ISBN, Hautesle erroldaren Bulegoa, Trafiko Lurralde Buruzagitza, Polizia Zuzendaritza Nazionala), Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A., Bizkaiko Foru Diputazioa, Bilbo Haundiko Uren Partzuergoa/Consortio de Aguas del Gran Bilbao, Telefónica, Iberia, CADEM, eta Osakidetza.

### **Banku eta Aurrezki Kutxak**

Banco Bilbao Vizcaya, Banco Atlántico, Bilbao Bizkaia Kutxa, Lankide Aurrezki Kutxa eta Caja Rural Vasca/Base-rritarren Kutxa.

### **Udalak**

Bilbo, Getxo, Barakaldo, Iruñea, Vitoria-Gasteiz, Durango eta Andoain.

### **Publizitate enpresak**

Aurman, Europatent, Deika, Estudios Arriaga, David Abajo Diseño, Norfeu Equip Gràfic.

**Beste zenbait enpresa eta partikularrak**

Eroski, D.Y.A., Iberia, Iberdrola, Composiciones Rali, S.A., Composiciones Ikur, Gráficas Elkar (S. Coop.), CISS Bilbao, S.A., Rótulos Roura, Forondako Aireportua, Europistas eta Bilboko Urretxindorra liburudenda.

Aldi berean, hizteigintzaz, gramatikarekiko zalantzez, euskara landu eta ikasteko metodo eta oharrez, itzulpen teknikiari buruz, bibliografia desberdinez, alfabetatzeko orientabideak direla-eta, zenbait udal eta Diputaziotako itzultzaileen kontsultak eta zalantzez, hor-hemenka burututiko itzulpenen zuzentze eta orrazteaz, Euskaltzaindira zuzendu diren galderak erantzun dira.

# **Diruzaintza**





Euskaltzaindiaren diruzaintzarentzat nahiko berezia izan da 1992. urtea, aurrekoan egoitza berriaren inaugurazioa izan zenez, iazko aurrekontu eta balantzen sartu behar izan zirelako ohizko ez diren diru-kopuruak, bai etxearen horniketarako baita funtzionamendu berriaren gastu bereziei aurre egiteko ere.

Bestalde, langileen soldatak ere igoera nabaria izan dute, lanpostuen sailkapena egin ondoren Eusko Jaurlaritzak indarrean dituen soldaten tauletara egokitu beharra izan delako.

Guzti hau estaltzeko, eta 1989an Herri Aginteekin sinatu zen hitzarmenaren arabera, hauen ohizko-dirulaguntza izan du Euskaltzaindiak, eta esker ona adierazi nahi die Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politika Idazkaritzari, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioetako Kultur Sailei. Madrileko Hezkuntza eta Kultura Ministeritzetatik ere jaso diren diru-laguntzak eskertzekoak dira.

Hala eta guzti ere, mentsa kezkarria sortu da 1992 urtearen azkenean, eta ahaleginak egin beharko ditu Erakundeak hurrengo urteetako aurrekontuen kudeaketan mentsa hori murrizteko. Egoera eta gokitze bereziak amaitzear daudelakoan dago diruzaintza eta dirutza eta ondarearen aldetik Erakundea bide onean laster sartuko da.

## 1992. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

<i>Sarrerak</i>		<i>Ordainketak</i>	
3. Salmentak eta bestelakoak	17.984.602	1. Zuzendaritza eta langilegoa	61.104.046
4. Transferentzia arruntak	210.49.727	2. Funtzionamendu gastuak	97.081.174
5. Interesak	420.221	3. Finantz gastuak	1.772.904
7. Diruegitamu itxiak	12.697.331	4. Batzorde eta egitasmoak	72.884.911
8. Finantz aktiboen aldaketak	475.427	6. Inbertsioak	2.792.361
9. Finantz pasiboen aldaketak	40.000.000	7. Diruegitamu itxiak	6.425.040
		8. Finantz aktiboen aldaketak	400.225
		9. Finantz pasiboen aldaketak	40.610.620
		0. Izakinak	7.726.193
Egoitzaren horniketa	282.073.308	Egoitzaren horniketa	330.255.506
	91.169.475		43.087.277
	<b>373.342.783</b>		<b>373.342.783</b>

# **Aurkitegia**



## **Egoitza**

### **Bulegoak**

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf. 94-4158155  
Fax 94-4158144  
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

### **AZKUE BIBLIOTEKA**

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf. 94-4152745  
Fax 94-4150051  
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

### **GORDAILUA**

Bilbo-Donostia errepidea, z/g - 4,5 km,  
Edif. Saga - 1. solairua  
48004 ETXEBARRI (Bizkaia)  
Telf. 94-4406258  
Arduraduna: Rosa M. Arza



### **Ordezkaritzak**

#### **ARABA**

San Antonio, 41  
01005 GASTEIZ  
Telf. 945-233648  
Fax 945-233940  
Ordezkarria: Endrike Knörr

#### **GIPUZKOA**

Hernani, 15  
20004 DONOSTIA  
Telf. 943-428050  
Fax 943-428365  
Ordezkarria: Juan M. Lekuona

#### **NAFARROA**

Conde Oliveto, 2,2.  
31002 IRUÑEA  
Telf. 948-223471  
Fax 948-210713  
Ordezkarria: Jose M. Satrustegi

#### **IPARRALDEA**

37, rue Pannecau  
64100 BAIONA  
Telf. 07-33-59594559  
Ordezkarria: Pierre Charritton











